




ARGIA



ONDO PROBATU GABEKO BOTIKEZ MEDIKATZEN GAITUZTE

KATALUNIA: TV3KO ALBISTEGIEN BURUARI ELKARRIZKETA

APPLE ERRALDOIA ETA GIZON BAKARRA AURREZ AURRE IRLANDAN


LARRUN: ANARKISTAK EUSKAL HERRIAN



Jakoba Errekondoren liburu berria
Antton Olariagaren ilustrazioekin

LANDAREAK LANTZEN

2018ko ZURE LANETARAKO AGENDA



Hemen duzu urte osoan
egin beharreko lanen
egutegia, **saso**i bakoitzari,
hilabete bakoitzari eta
ilargialdiari lotuta:
baratzean, fruitu arboletan,
lorategietan eta basoan.

Lan hauek noiz eta nola egin
ditugun jasotzeko aukera
ematen du agenda honek.

**LIBURUA
ESKURATZEKO***

943 371 545
denda@argia.eus
www.argia.eus/denda



*Jakoba Errekondok sinatzeko aukera

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Aktualitatea
- 7 Fauna publikoa
- 10 Net Hurbil: Apple *versus* gizon bakarra Irlandan

IRITZIAK

- 17 Aiala Alorrieta
- 18 Joxerra Aizpurua
- 19 Jose Ignazio Ansorena Edu Zelaia



TV3 Kataluniako telebista publikoa Espainiako Estatuak jomugan nola jarri duen azaldu digu David Bassa albistegietako zuzendariak. (ARGAZKIA: DAVIDPAR)

- 39 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: CLAUDINE SAGAERT
- 54 BERANDUEGI

SAKONEAN

- 12 | Lucrecia Masson: "Nolatan neurtzen dira gorputzak XIX. mendeko langile baten pisuaren arabera?" / Danele Sarriugarte Mochales
- 20 | Sendagaiak baimentzeko prozedura: Botika berrien bermea, gero eta ahulagoa / Unai Brea
- 25 | Filipinetan sarraskia, drogaren aurkako gerraren izenean / Ane Irazabal Elkorobarrutia
- 28 | Unibertsitatea: Zergatik matrikulatzen dira ikasle euskaldunak gaztelaniazko taldeetan? / Ainhoa Ortega Bretos
- 30 | Monsantoaren eskuliburua: Zientzialarien lana desitxuratu, pozoia saltzen jarraitzeko / Unai Brea
- 32 | David Bassa, TV3: "Kataluniako hedabide publikoak interbenitzea justifikatuko lukeen kontakizuna sortzen ari dira" / Lander Arbelaiz
- 36 | Estatuaren biktimak: Argazkien bidez memoriara / Xabier Letona
- 44 | Juanxo Arakama, Glaukoma: "Rock-and-rollak erreferente izateari utzi dio munduan" / Iker Barandiaran
- 47 | Arte iruzkina: Pello Irazu / Xabier Gantzarain

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AUERRERA. MILA ESKER DENOI.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Andoni Mikelarena, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produkzioa:** Antza S.A.L.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:

Kidetza harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoa eginaz, ARGIA argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larrun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.

Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).



PANORAMA

Tosu, alferreko azpiegituren aurkako erresistentziaren ikur

Urriaren 17ko goiza nahikoa izan zuten, ertzainek lehenik eta hondeamakinek gero, hilabete askoan eraikitako etxola eraitsi eta baratzeak suntsitzeko Getxoko Tosu landan. Azken erresistentzia zantzuak gauerdira arte iraun zuen ordea: tripodearen gaineko ekintzaileak jaisteari uko egin eta han egon zen hamasei orduz. Nolabait, Tosu Betirako asanbladaren eta Uribe Kostako herritar askoren temaren iragarpena izan zen. Lau egun geroago berriro okupatu zuten eremua dozenaka lagunek, aparkaleku erraldoia egiteko jadanik hasitako obrak geldiarazteko asmoz. Baita lortu ere: bi aldiz joan zaie Ertzaintza, eta bietan –hau idazteko unean behintzat– atzera itzuli.

Argazkia: Hodei Torres (Hiruka) · Testua: Unai Brea



Ainhoa Intxaurrendieta GHKren aurreko presidentea eta Iñaki Errazkin Ingurumen diputatu ohia auzitara eramango ditu GHK-k, erraustegia eraikitzeko kontratua deuseztega egotzita.



“Dozenaka milioika euro dira lurraldeak galdu dituenak eta norbaitek hartu behar du bere gain kalte honen ardura”

@markelolano
Gipuzkoako diputatu nagusia



“Honen guztiaren atzean ez dago auzi juridikorik, ez baitago delituri. EAJ-PSEk mezu bat zabaldu nahi dute: aldaketa dakarren gobernu batek hauteskundeak irabaz ditzake, baina ezin du agindu”

Martin Garitano,
diputatu nagusi ohia



“Herriarren interesak defendatuz elite ekonomikoaren aurka borroka egitea zaila dela jakinik ere, berriz egingo genuke! Eutsi!”

@ainhoa_GHK
Ainhoa Intxaurrendieta



ELA

Prekarietatea eraikuntzan: obra nagusiak “gelditzeko” prest da ELA

Urko Apaolaza Avila
@urkoapaolaza

Eraikuntzaren arloan, Gipuzkoan egoera jasanezina bizi dutela azaldu du ELA sindikatuak, AHT, erraustegia, Anoeta eta beste obra askotan azpikontratazioa eta prekarietatea nagusi direlako. Lan baldintza kaskarrek, iruzurrek eta istripuek gaina hartu dute Gipuzkoako eraikuntzan, ELAren esanetan. Lurralde Hitzarmenaren erdia ere ez dute kobratzen langileek askotan, eta lanaldiak “gehiegizkoak” direla salatu dute. Obra nagusietako adibidea jarri dute egoera zein den deskribatzeko. Horietan, beharginek 5 eta 9 euro artean kobratu ohi dute eta 10 eta 12 orduko lanaldiak izaten dituzte, Igor San Jose eta Luis Fernandez ELAko arduradunen hitzetan: “Langileek lanean neke handiak hartu eta batzuetan bizia ere galtzen

dute”. Sindikatuaren arabera hitzarmena errespetatuko balitz 5.000 lanpostu sortuko lirateke Gipuzkoan eraikuntzaren arloan.

Gogor kritikatu dituzte Adegia eta Ascongi patronalak: “Beldurraz eta xantaiak baliatzen dira beharginak esplotatzen segitzeko”, eta administrazioari leporatzen diote “asmo txarreko” axolagabekeriak aritzea. “Obra esleitzerakoan jakin badakite enpresa horiek den-dena azpikontratatu dutela, iruzurrezko baldintza prekariotan”.

ELA mobilizazioak azkartuko dituela iragarri du eta bilerak eskatuko ditu administrazioarekin. Esplotazio kasuetan nahasturiko enpresa guztiak Lan Harremanen Kontseilura eraman nahi ditu han azalpenak eman ditzaten. Lan-baldintzek berdin jarraituz gero, gainera, San Josek azaldu du neurri gogorragoak hartuko dituztela, eta ez dute baztertzen obrak “geldiaraztea”.

“Baldintza minimoetatik behera egin genuen lan Sautrelan azken urte osoan”

BEÑAT SARASOLA, SAUTRELA SAIOKO ZUZENDARI OHIA

ETBk ez du Sautrela gehiago emitituko. Hasier Etxeberriak saioa utzi behar izan zuenean, “erredaktorerik ez zuten kontratatu, eta halako programa bat egiteko baldintza minimoetatik behera, erredaktorerik gabe, egin genuen lan urte osoan”. Taldea pixka bat handitzeko proposamena ez zuen onartu zuzendaritzak. Sautrelak betetzen zuen funtzioaz galdetuta, beste bat da bere galdera: “Ze funtzio betetzen dute zabor-saio diruz ongi hornituek? Euskararen normalizazioa? Sarri rating-ean 1era ozta-ozta iristen direla?”. **ARGIA.EUS (2017-10-19)**



FAUNA PUBLIKOA

"Laburbilduz, nahiago dut ezagutzen dugun normaltasuna eta haren inertzia, lurralde ezezagun baten ezohikotasuna baino"

Gaspar Llamazares, IUko koordinatzaile nagusi ohia
Kataluniako egoeraz (Twitter)

The Walking Dead komunista



Gorka Bereziartua Mitxelena
 @boligorría

"Herrialde guztietako proletarioak, elkar zaitezte! Ezagutzen dugun normaltasuna eta haren inertziaren alde, noski". Entzun dute, hilkutxatik atera dira eta badoaz Karl Marx eta Friedrich Engels EasyJet batean, Gaspar Llamazaresi gauza pare bat esplikatzera; ez dagoelako deretxorik igitai mailu soviet Potemkinak deformatzeko *Los Serrano*-ren azken kapitulua baino patetikoagoa den esaldi honetan.

Iritsi dira Espainiako Kongresura. Jarri dira elkarri begira Marx, Engels eta Llamazares. Eta ez dago oso argi hiru-retatik nor dagoen hilda. Konprobatzeko modu bakarra da, glups, haginka hastea.

Iraultza gorriaren aitajaunek diputatuaren sekretu iberikoak murtzikatzen dituzten bitartean, aprobeztatuko dugu esateko ez garela sobera harritu adierazpenarekin. *The Simpsons* telesailak aurreikusi zituen Llamazaresen estiloko pertsonaiak: Espainiako politikaren Seymour Skinner da, inizatibarik ezagutzen ez zaion tipo gris, aspergarri eta e-ra-bat aurreikusgarria, zeinaren meritu politikoen artean dagoen IUK lortu izana historiako emaitzarik eskasena. Hauteskundeak beti galtzea, ordea, ez da "lurralde ezezaguna", baizik eta "ezagutzen dugun normaltasuna". Eta haren inertZZZZzzzzZZZZzzzz.

Ups, lo hartu dugula, bukatu al dute hauek Gasparrekin? Itxoin, itxoin, gehiago ere badaude eta: Kataluniako egoeraren aurrean deskoloke inportante bat daukaten progre, ezkertiar eta ultra-ezkertiar espainiar guztiak triparatzen hasten badira, *Manifestu komunista* baino, hau izango da Platonen *Oturuntza*.

Zonbi bat dabil European barrena, komunismoaren zonbia. Eta bere izenean hitz egiten duten gorpu politikoak ikusten dituenean, hortzak izerditan hasten zaizkio. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



ANALISIA



Irudi bat, irudikeria uxatu alderat



Mikel Asurmendi
@masurmendi

Hendaiatik ari naiz. Euskaldunon panorama politiko sozialari eite eman nahian. Zein panorama-markoaz ari naiz, baina? *Iparraldea*-z, naski. Abertzaleentzat Iparraldea beren marko politikoa da. Tokiko militanteek edota hautetsiek ez dute Euskal Herria esaten, Iparraldea diote. Frantziar hautetsiek aldiz, *Pays Basque*. Hau da, marko hori Euskal Herri osoa da beraientzat. Eurentzat badaude ere, *País Vasco* edo *La Navarre*, baina horiek *L'Espagne d(ir)a*. Iparraldeko frantses politikari zenbaiten irudian *Le Royaume de Navarre* ere badagoke. Abertzaleen ilusioan, Nafarroako Erresuma.

Eite edo irudi horiek ez dira kolektiboak, ordea. Ez Iparraldean ez Hegoaldean ez dago Euskal Herri osoko irudi kolektiborik. Abertzaleek –Euskal Herri osatua xede dutenek, dugunok– Euskal Herriaren irudia eraikitzen jardun dute azken 60 urteetan –ETA jaio zenez geroztik–, baina urte aldi hori ez da aski izan, historiatic jaso dugun ilusioa “irudikeri kolektiboa” izateaz harago iristeko.

Hegoaldekoek –egiari zor, abertzaleek baino ez dute hori egiten– Iparraldearen panorama politiko errearen irudia osatzean kontzeptu lausoak erabili ohi dituzte. Badakite gutxi-asko Euskal

Elkargoa sortu berri dela, baina hari buruzko informazioa jasotzean ez dituzte oinarritzko estatistika sinpleenak eza gutzen. Hona datu soil bakar batzuk: Hendaia Gipuzkoako kornerra da. Hegoaldekoen marko-irudian sartzeko datu bat: Hendaia 17.000 biztanle ditu –4.000 bizitoki ‘bigarren etxeak’ dira– eta udaldian 40.000. Hendaia eta Baiona artean 100.000 gara eta udaldian Lapurdi osoan 500.000 jende ostatu hartzen du. *Côte Basque touristique* delakoa gara. Aldiz, Nafarroa Beherean 28.000 biztanle dira. Zuberoan, 17.000.

Gipuzkoan (1.980 km²) 715.000 biztanle dira, 373 pertsona bizi dira km² bakoitzean. Zuberoan (815,5 km²) 17.000 biztanle. Hendaian (7,95 km²) Zuberoan bezainbat biztanle gara: 2.111 kilometro koadroan.

Irun hirian 62.000 bizilagun dira (42 km² ditu), 1.453 biztanle kilometro koadroan, Zuberoan 17 biztanle km²-ko.

Irudi ikusgarriago bat izan aldera: Irungo Anaka auzoan (5 km²) eta Zuberoa osoan jende kopuru bera bizi da.

Tokiko panoramaren irudia egiteko datuak dira, baita analisi politiko soziala egiteko datu lagungarriak ere. Irudi marro bat, gure irudikeria uxatu alderat.

EKONOMIAREN TALAIAN

Urtebete greban



Juan Mari Arregi

Laster beteko da urtea Bizkaiko zahar etxeetako langileak greban direla euren aldarrikapenen defentsan: 35 orduko lan astea jasotzen duen sektore hitzarmena, pertsonal gehiago, asistentzia kalitatea hobetzea, 1.200 euroko soldatak, eta gehigarri edo plusen kobertura handitzea. Gesca-rekin –sektoreko patronal garrantzitsuenarekin– aurre-akordioa lortu eta gatazkari konponbidea emateko itzaropena piztu denean, Lares eta Elbe patronalen intrantsigentziak negoziatzia blokeatu du berriz ere. Hain justu, trabak jarri dituzten elkarte horiek jarraitzen dute finantzazio publiko foral eta lokala jasotzen. Horregatik, zahar etxeetan gehiengoa duen ELA sindikatuak Bizkaiko Aldundia-ri eskatu dio esku hartu dezala egoera desblokeatzeko, nahiz eta honek orain arte ez duen modu baikorrean erantzun.

Egoera horren aurrean, hilabetez hilabete kalean mobilizatzen ari diren grebalariek oinezko martxa bat egin dute joan den astean gatazka ikusarazteko. Gainera, udal erakundeak eta balizko akordioa blokeatzen duten erresidentziak zuzenean interpelatu dituzte ekimen horren bidez. Ibilaldia Bilbon hasi zen eta Bizkaiko hainbat herri igaro ostean Foru Aldundiaren aurrean amaitu zuten urriaren 21ean.

Zutabe horretan parte hartu dutenek deia egin diote foru erakundeari egoera desblokeatu dezan. Sektorean lan egiten duten 5.000 lagunek eta zerbitzatzen dituzten 7.000 adinekoek ez dute merezi instituzio publikoen jokabide hori: patronalen interesei egiten die mesede soilik, langileen prekarietate eta miseriaren bizkar, eta gure zaharrei eskaini beharreko zerbitzua kaltetzen du gainera. Bizkaiko Diputazioak egoera desblokeatu beharko luke orain-txe bertan.



FLICKRTXENG MENG

Alfredo Remirezi elkartasuna

BILBO. Alfredo Remirez amurriorearen omenezko *speakeer* ekitaldia antolatu zuten Bilbo Zahar auzoan urriaren 14an. Hainbat artista igo zen oholtzara: Kokein taldea, Lutxo Egia idazlea, Oihana Bartra bertsolaria... Beste batzuek bideoa bidali zuten: Los Chikos del Maizeko Negak, Estricalla eta Kop taldeek, besteak beste. Alfredo Remirez Marañon @erreharria txiolaria espetxeratze aginduaren zain dago, urtebeteko kartzela zigorra bete beharko du dispertsio politika salatzeke ekintza bat egiteagatik.

Oarsoarrak Komunitatea 2018rako giroa berotzen

Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Erreterria, Oiartzun, Pasaia eta Lezon 110 lagunek konpromisoak hartu dituzte euskara erabiltzeko. Oarsoarrak Euskarazko Komunitatea sendotzen ari dira.

Masa kritikoa

Herri bakoitzetik 20 lagunek konpromisoak hartzea lortu zuten lehenengo. Ondoren, herritar gehiagok eman du izena. Helburua, euskararen erabileran erreferente izango den masa kritikoa, muskulua, sortzea da.

2018ari begira

Udazkenean Erreterria eta Oiartzunek Lasarte-Oriaren ereduak ekimena egingo dute. Bestalde, lau herriak Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzak 2018rako antolatutako "Euskarak 365 egun" ekimenaren antolatzaileak ari dira.

Derion ere bai

Lehendabizi herriko establezimenduen zerrenda osatu dute euskaraz zerbitzua emateko gaitasunaren arabera. Udazkenean, lau egunez euskaraz aritzeko aktibazio kanpaina egingo dute 2018ko erronkarako prestatze-bidean.

ERREFERENDUMA



%98k

autonomia handiagoaren alde bozkatu du Lombardia eta Veneto Italiako bi eskualdeetan egin duten erreferendumean.

%57,2koa izan da parte-hartzea Venetoko eta %40 ingurukoa Lombardian.

Negoiakei ekiteko prest dagoela adierazi du Italiako Gobernuak.



EUSKAL ZINE BILERA

40. edizioa ospatu du aurten Lekeitioko Euskal Zine Bilerak. Film onenaren saria Begoña Vicarioren *Jane, Tarzan ez zen horren guay* lanak lortu du profesional mailan eta Amancay Gaztañaga eta Erika Olaizolaren *Zulo* filmak amateur mailan.



ZENTSURA

Eskutitz bidez, Espainiako Gobernuak Audioko alkateari esan dio ez diezaola utzi Etxerati dispertsioari buruzko erakusketak martxan jartzen. Etxeratek dio erakusketarekin jarraituko duela. Gasteizen egon zen ikusgai ekimen bera, eta ez zen arazorik izan.



UPN-REN HERENTZIA

UPNk oker kudeatutako auziengatik 67 milioi ordaindu ditu aurten Nafarroako Gobernuak 51 milioi euro bideratu beharko dira Garraioaren Hiria handitzera eta 16 behin-behinean Gobernuarentzat lan egin zutenen oporrak ordaintzeko.

Dema itzela Irlandan: Apple eta mundu guztia versus gizon bakarra



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Planetako jende burutsuenei uneoroko zoriona zerbitzatzen dien Apple multinazionalak Irlandan eraiki nahi du Europako datu biltegiarik handiena, 850 milioi euroko inbertsioa datozen 15 urteetan. Ordaindu gabeko zergetan lehendik milaka milioi ostu dizkien arren, irlandar ia guztiek nahi dute Applek berriro hauta ditzan bere negozioetarako. Ez denek, ordea. Bada norbait jarraitzen duena epaitegietan borrokan urrezko sagarraren asmoaren kontra.

Bi urtez auzitegietan katramilatuta eduki ostean, urri hasieran epaitegiek atea zabalik utzi diote Appleri Irlandako Galway eskualdean eraiki dezan Europako bigarren *data center* handiena. Multinazionalari bere maitasuna irailean kaleko manifestazioz deklaratu zioten Athenry herrian jendeak zoratzen daude. Aldiz, epaileengana jo zuten hiruek adierazi dute helegitea aurkezteko asmoa.

Bata Brian McDonagh da, ustez Applerentzako egokiak ziren beste lur batzuk erosten 22 milioi gastatuta, orain horiek galdu nahi ez dituen. Bigarrena Sinead Fitzpatrick abokatua, proiektua doan eremuaren ondoan bizi dena. Hirugarrena eta benetan hautsak harrotu dituen Allan Daly da, AEBetan sortu eta Athenryko emakume batekin ezkondua, Kaliforniako Sierra Search ingurumen aholkularitzarekin lan egiten duena internet bidez.

Allan Daly joan den udan bisitatu zuen David Gilbert kazetariak, haren argudioak *Vice* hedabidean biltzeko "Irlandako herri txiki bateko gizon batek pikutara bidal ditzake Applek Europarako dituen planak" kronikan. "Dalyren kezka da Applen *data center* berria sekulako zama izango dela Irlandako sare elektrikoarentzako. Era berean, Applek ez dauka planik eraikuntza berrietan sortuko dituen gas isuri handiak murrizteko. Proiektuarentzako aukeratu duten lekua ere ez da egokia, Galwayn badira gune egokiagoak dagoeneko planetan izendatuta dauden artean".

2015eko abuztuan jaso zuen Apple-
ren ordezkarien bisita. Athenryko hotel bakarrean egindako hitzorduan, oso gozo mintzatu omen zitzaizkion, "baina argi utzi zuten ez zutela ezer aldatuko, ezer egitekotan egingo zela justu haiek esandako eran eta epeetan". Munduan gehien balio duen konpainia horrela jokatzeraz dago ohituta.

Krisi garaiotan, iPhoneen salmentak makaldurik, konpainiaren emaitzak bermatzeko garrantzia berezia hartu dute, iTunes, App Store, iMessage, iPhoto eta gainerako zerbitzuek, datu biltegi handiak behar dituztenek. Eta Europako parlamentuetan kezka eragiten duenez bertako herritarren datuak munduan barrena zabaltzeak, horiek Europan biltzea nahitaezkoa bihurtu da. Oinarritzko negozio atal horretan besteren mende ez egoteko Applek bereak nahi ditu. Badauka bat Danimarkan eraikia eta Irlandako hau izanen da AEBetatik kanpo daukan bigarrena.

Daly ez da izango Irlandak gisa honetako proiektuetan ingurumen kontrol oso eskasak dauzkala dioen ez lehena eta ez bakarra, baina gehienek atzera egin duten bezala berak aurrera jarraitu du. Bide batez esanda, Amazonek Dublingo unibertsitateko campusean egin nahi duen 1.000 milioi euroko beste *data center* baten kontra ere ari da.

Salaltzen duenez, Dublingo agintariek IDA Irlandako Garapen Agentziaren bidez herritarrei ezkutatzeko dizkiete proiektuen benetako ingurumen eragi-

nak, multinazionalak ekartzeko beren obsesioan. Ez da harritzekoa Athenry eta inguruetan herritar gehienak haserre egotea Dalyrekin, eskualdea berpizteko aukera galduko duten beldurrez. *Athenry for Apple* facebookean ikus-entzun daitezke beren argudioak, Applek ekarriko dien aurrerapenaren itxaropenak eta Dalyren kontrako haserrearen.

*Vice*ko kazetaria egon baitzen talde horretako kideekin, Daly aipatuta batetik esan zion "proiektu handiak oztopen jarraitzen baldin bazuen, bukatuko zuela Michael McCoyk bezala". McCoyk Dublin inguruko beste herri batean hainbat proiekturi oztopoak jartzen zituen eta joan den urte amaieran haren gorpua aurkitu zuten jipoituta hila. Hemerrotekan bilatuz gero irakur daiteke poliziak ez duela hiltzailerik aurkitu.

Kolonialismo berria Europan bertan

Allan Dalyk kalkulatu duenez, Athenryko data biltegia eginez gero Applek 240 Megawat kontsumituko ditu, hots, Irlandako argindar kontsumoaren %6, herrialdeko etxebizitza guztien laurdeneren pareko. Applek dio, bost urteren buruan gehienez 30 Megawatera iritsiko dela. Dalyk arrapostu, Applek kontabilitatetik kanpo uzten dituela Irlandan dauzkan zerbitzu ugarien kontsumoak.

Kontua da Irlanda kokagune estrategiko bilakatu dela konpainia askoren-
tzako. Batetik, *Brexit*arekin, bera gera liteke Europar Batasuneko herrialde ingeles hiztun bakar. Eta bestetik, kon-





RTE Irlandako Irrati-Telebistaren irudian, Athenryko herritarrak irailean Appleri herrira etortzeko eskatuz burututako manifestazioan. 4.500 biztanleko herrian 2.000 jende bildu ziren. Applek agindu die 300 lanpostu sortuko dituela, horietatik erdia eraikuntza lanek iraun artean. Multinazionalari bakar-bakarrik aurre egiten dion Allan Dalyk dio herritarrak ez direla jabetzen sakoneko arazoaz, Irlandak diru asko galtzen duela: gobernuak zergak barkatzeaz gain, herritarren zergekin antolatzen dizkie azpiegitura berriak Apple eta beste erraldoiei.

painien etekinei jartzen dizkien zergak Europako apalenak dira. Microsoft izan zen lurreratzen lehenbizikoa, 2009an Dublínen ia bost hektareako eraikina ezarriz. Ondoren iritsi dira Alibaba, Google, Amazon, Facebook...

Multinazionalen data biltegiek iaz bertan 300 Megawat baino gehiago kontsumitzen zuten. Horretarako argindar sarean egokitzen handiak egin behar izan ditu Irlandak, milaka milioi aterata irlandarren sakelatik. Ordainetan, oso enplegu gutxi sortzen dute, Applek Athenryrako 150 aipatzen ditu, Amazonek Dublínen 15 sortu ditu.

Applek dio energia guztia berriztagarrietatik eskuratuko duela. Greenpeacek ere txalotu omen du jarduera hori. Dalyk uste du, aldiz, kontsumo itzel hori lehendik dauden berriztagarrietatik xurgatzea ez dela onargarria,

Apple agintariekin behartu behar dutela bere ingurumen eragina murrizteko. Danimarkak, esate baterako, bertan *data center* bat eraikitzeko exijitu dio ordenagailuek sortutako beroa aprobe-txatzea inguruko etxeen berokuntzan, Seatlen Amazoni eskatu dioten bezala; Kalifornian Googlek teiltueta euria biltzen du makinak hozteko. Applek antzeko konpentsazio bat egin ahal izango zuen 200 hektareatako oihanaren ordezkari onartu balu beste lur eremu bat Athenryn bertan, herriko eraikin publikoak berotuz. Baina Apple ohituta dago nahi duen guztia egiten Irlandan.

Zer diren kointzidentziak, Dublin-go epaileek Athenryko data biltegiari argi berdea eman dioten egun beretan Europako Batzordeak Irlanda auzitara eramane du Appleri 13.000 milioi euro barkatu dizkiolako zergatan. Iazko irai-

lean agindu zioten Europako agintariekin Dublingoei kobratu gabeko zerga horiek eskatzea Appleri. Kopuru izugarriak Irlandaren urteko gastu sozialaren bi heren adinakoak. Baina gobernuaz gain herritarrak ere zorra ez erreklamatzearen alde daude, inkesten arabera.

80ko hamarkadatik neoliberaletan beste guztiontzako garapen eredutzat aipatu izan duten *tigre zeltak* paradisu fiskal baten baldintzak eskaini dizkie multinazionalari. 2008ko krisia leher-tu zenean inork ez zituen ukitu horien zerga betebeharrak. Europak ezarritako neurri hori saihestu eta korporazio handioi plazer egiteko edozer egingo du Irlandak: XXI. mendeko kolonia baten ezaugarri asko betetzen ditu, tartean herritarren menpekotasuna. Baldintza horietan, ea norak erakusten dizkion hortzak Appleri. ■





ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

50 urtez elkarrekin

Lucrecia Masson, gorputz disidentearen aldarrikatzailea

«Nolatan neurtzen dira gorputzak XIX. mendeko langile frantziar baten pisuaren arabera?»

“Gorputz-eredu normatiboetatik kanpo dauden gorputzen aurkako gorrotoa”; halaxe laburtu zuen lodifobiaren esanahia Constanza Álvarez Castillok. Magdalena Pyñeirok, berriz, halaxe: “Lodiok lodi izateagatik pairatzen dugun bazterketa”. Lucrecia Massonek erantsi du “gorputz lodiak arbuiaitzeko eta gaixotzat jotzeko modu bat” ere badela. Izan ere, bizi-bizi dabilta lodi-aktibismoak, Emma Goldmanek aldarrikatu zuena azalberrituz: nire pisua neurtu behar badut, ez da nire iraultza.



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Ohar biografiko batean, haxe zenioen zure buruaz: “Aktibista transfeminista, eta deskolonizazio bidean dagoen *sudaka* eta lodia” zarela. Hortixe abiatu nahi nuke elkarrizketa: nolatan iritsi zinen transfeminismora?

Argentinatik nator, hegoaldetik; gero, Buenos Airesen egin nituen zenbait urte, eta han hasi nintzen apur bat feminismoan aktibatzen; azkenik, putzua zeharkatzean topatu nituen feminismo autonomoago batzuk, eta emakume lesbiana eta transen komunitate bat. Garai horretan hasi zen transfeminismoa bera indartzen. 2009an, Granadako jardunaldietan idatzi zen iraultza transfeministaren aldeko manifestua, eta gero eta kide gehiago hasi ginen horrekin bat egiten eta edukiz betetzen. Zeharkako erantzunak bilatu nahi genituen feminismoaren barruan, beste ardatz batzuk ere kontuan hartu: soilik emakume subjektua lantzen zuen feminismoa ez baizik subjektu hori zabalduko zuen korrontea nahi genuen.

Zuretzat, zer da?

Nik marko gisa erabili dut, eta hortik abiatuta, zenbait unetan, mundua eta nire burua pentsatu ditut, eta ekin, jakina. Markoak aldatu egiten dira, hala ere. Nik transfeminismoaren aldeko apustua egiten dut oraindik ere, baina zenbait gairen falta sumatzen dut, adibidez arrazarena.

Eginkizun dago hori?

Uste dut zalantzan jarri behar dela eta toki gehiago eman behar zaiola, bai. Edonola ere, niri transfeminismoak balio izan dit, eta balio dit gaur egun ere, adibidez, gorputzaz pentsatzeko; oso tresna ona iruditzen zait. Egia da orain dela urte batzuk gorputzaz gehiago jardutea sumatzen nuela faltan, eta gaur egun, diskurtso berriak agertu direla, beraz uste dut ardatz berriak txertatu daitezkeela apurka. Era berean, uste dut ikuspegi berriak agertzen eta eraldatzen joango direla, hain zuzen ere, beste emakume horiek egon badaudenean; ez

zait iruditzen sektore txiki batek, inoiz abangoardia deitu izan zaionak, ezer ekarriko duenik ildo horretan.

Abangoardia deritzonaren bidez ez, nola eralda daitezke mugimenduak, eta ikuspegi berriak sartu?

Topo egitea, horixe da gakoa. Transfeminismoaren bitartez iritsi naiz ondorio honetara: sinesten dut topo egin behar

Lucrecia Masson

Ombucta, Argentina, 1981

Zientzia politikoak ikasia, aktibista da Lucrecia Masson. Hainbat artikulu kaleratu ditu hainbat argitalpen kolektibotan, gehienetan gorputz disidentzia landuz. Aise lortzekoa, bilduma honetakoa: *Transfeminismos: epistemes, fricciones y flujos* (Tlalaparta, 2013).





dugula, eta hor hasiko direla gauzak mugitzen eta gertatzen. Ez dut uste gorputzik gabe pentsa daitekeenik, beraz, gure artean ez badago harremanik, nik ezin dut jakin zer ari ote zaizun zuri gertatzen. Elkartzearen eta egotearen potentzia sinesten dut: helburu handiusterik ezarri gabe ere, hortxe gertatzen dira gauzak.

Irain gisa erabili ohi diren bi hitz ere egin dituzu zure. Lehen: *sudaka*.

Jakina, putzua zeharkatu eta Schengen espazioan [Europar Batasuneko herrialdeen arteko mugako kontrolak kendu dira; kontrolak espazio horren kanpoko mugetan baino ez dira egiten] sartu ostekoa da hori. Bidaia prestatzen ari nintzela, laño-laño ibili nintzen: entzuna nuen zer edo zer, baina ez nuen benetan pentsatzen halakorik egon zitekeenik, atzerritarrek barneratzeko zentroak eta abarrak. Gero ikusi nuen Schengen espazioa muga benetan gordin eta bortitza zela, heriotza-muga bat, eta kasu honetan, kolonia ohietatik gentozenok ez ginela ondo etorriak. Eta ikusi nuen, hain zuzen ere, bazeudela atzerritarrek barneratzeko

zentroak, deportazioak... Iritsi arte ez nion neurria hartu, eta luzaroan erabili nuen buruan ea nolatan harritu nintzen mugaren bortiztasunarekin. Izan ere, banuen Schengen espazioaren berri, baina nolabait ere, Europar Batasuneko politikaren antolaketari lotuta zegoen aldetik ezagutzen nuen. Datu bat zen, ez nuen zuzenean lotzen migratzaileekin. Ez nuen gordinkeraren benetako neurririk.

Zure egin duzun bigarren iraina: *lodia*. Edonola ere, deskolonizazio bidean zaudela ere badiozu.

Gorputzaren deskolonizazioari jarri nahi diot azpimarra. Deskolonizazio bideetako bat jaioterriarekin eta migrazio-prozesuarekin dago lotua, baina, aldi berean, iruditzen zait deskolonizazioa gauza askoz zabalagoa dela, bizi osoa har dezakeena. Beraz, uste dut gorputza bera deskolonizatu behar dugula. Dena dela, hau guztia prozesu bat da niretzat, ez helburu bat edo noizbait iritsi beharreko leku bat. Horretan nabil, norbere gorputzari eta gorputz kolektiboari buruzko zenbait auzi berriro planteatzen.

Zer nolako auziak dira horiek?

Orain dela gutxi, Emma Chirix soziologo guatemalarra aditu nuen hizketan. Maia-kaqchikel herrikoa da bera, eta gorputzaren deskolonizazioa lantzen du. Chirixek zioen binomioei heldu behar diegula, ez ordea emakume-gizon binomioari, ezpada bestelako binomioei, nahiz eta emakume-gizonena izan feminismoetan ari garenoi bururatzen zaigun lehena. Baina oso pentsamolde mendebaldarra da hori: modernitatean, XV. mendean hasi ziren bi generoak errotik ezberdintzen, orduantxe hasi zen emakume eta gizonez hitz egiten eta hori egia zalantza ezintzat jotzen. Chirixen ikuspegitik, berriz, gorputzaren deskolonizazioari heltzeko beste binomio hauek jarri behar dira zalantzan: gorena-beherena, moderno-zaharkitua, zibilizatua-basatia, ederra-zatarra...

Deskolonizazio bidean dagoen lodia naizela esaten dut, hartara, gorputzen eraikuntza-molde jakin baten berri emateko: binomio-logika horietatik abiatuta eraiki da gorputzei buruzko ikuspegi bat, eta binomio horien denen sorburuan zer dago, bada pentsamendu zuri, moderno eta mendebaldarra.



Gorputz-masaren indizea eta horren historia aipatu zenituen hitzaldi batean, argi erakusten baitute estu lotuta daudela kolonialismoa eta gaur egungo gorputzen gainerako araua.

Loditasunari eta obesitatea deritzon termino medikuari buruz ikertzen ari nintzela, ikusi nuen gisa horretako gorputzak eraikitzen dituzten mekanismo guztiek Europan zutela iturburua nola edo hala. Esate baterako, gorputz-masaren indizearekin egin nuen topo: Adolphe Queteledek asmatu zuen, bioestatistikaren aitak. Frantziako Gobernuak eskatu zion indize hori sortzeko: aritmetika-ariketa zen, ez besterik, baina horri esker kalkulatu zitekeen ea langileek zer pisu izan behar zuten, gutxienez, egunero-egunero lantegira itzuli ahal izateko, eta lan-indarra ekoizten eta erreproduzitzen jarraitu ahal izateko.

Indize hori, gero, mundu osora zabaldu da.

Indizea nondik zetorren jakin nuenean, nire buruari galdetu nion: Frantzian sortu zen indizea, Industria Iraultzaren abaroan, xede zehatz batzuk lortzeko. Zer zerikusi dauka horrek denak beste-

lako ekoizpen modu batzuekin, lurra-ri lotuago dauden bestelako eredu eta elikadura batzuekin? Hemeretzigarren mendeko langile frantziar baten pisua nolatan bilakatu da gainerako gorputz guztiak neurtzeko balio duen gorputz unibertsal?

Gauza jakina da unibertsalizatzea dela kolonialismoaren eragiketa tipikoetako bat, are gehiago, unibertsalizazioan oinarritzen da kolonialismoa, beraz, ikusirik indize horren arabera neurtzen direla gorputz denak, gutxien-gutxienez, susmagarria iruditu beharko litzaiguke. Ikusi behar dugu proiektu koloniala noraino daramagun gorputzean, eta zer egin dezakegun hori desikasteko.

Gainera, gorputzen osasuna neurtzen da indize horren arabera.

Gorroto-adierazpen bat da lodifobia, eta osasuna izaten da gorroto hori sostengatzeko argudio nagusietako bat. Hasteko eta behin, diskurtso medikua estamentu zalantza ezina da gaur egun, uste dugu ez dakigula ezertxo ere gure gorputzaren osasunaz, eta sendagileak, bata zuria jantzirik, hark bakarrik esan diezaguke zer den ona eta zer txarra. Erdi Aroko he-

rritarrek nolako harremana apaizarekin, halakoxea guk gaur egun sendagileekin. Autonomo eta independente izan nahi dugu, baina osasunarekin harreman guztiz hierarkikoa daukagu, jakintza hori guztiz ezezaguna balitzaigu bezala.

Zer gertatzen da pertsona lodi bat medikutara doanean?

Esan moduan, botere-egoera guztiz bertikala da, eta lodiok medikuaren kontsultara sartzen garenean, sendagileak ikusi bezain pronto ondorioztatuko du diabetesa eta hipertentsioa daukazula eta seguru asko urte gutxiren buruan hilko zarela, bihotzekoak jota. Sendagileak hori jakitea zu ikusi bezain pronto igartze-lana da, ezta? Beraz, egoera horretan, zenbat da zientzia eta zenbat lodifobia? Zera, sendagile horrek oraindik ez ditu zure analisiak ez beste ezer begiratu, ikusi egin zaitu, ez besterik, baina aurreiritzi lodifoboak daukanez, zuzenean lotzen ditu gorputz lodiak eta gaitz jakin batzuk, gorputz hori berori akats gisa ikusten baitu, oker dagoen gorputz gisa, zeina desagertu egin behar baita, eta argal bihurtu, orduantxe izango baita zorientsu, azkenik.

Hauxe ere esan duzu: gorputz "normalak" eraikitzen dituen dispositiboak jarri behar dela zalantzan.

Lodifobia lantzeko garaian, potenteagoa iruditzen zait beste hori aztertzea, ea zerk eraikitzen duen gorputz normal bat, eta hortik abiatuta ikustea ea zergatik nagoen ni arautik kanpo. Jakina, lodifobiak eratzen duen bortizkeria guztia ezagutu behar da, eta aurre egin behar zaio modu aktiboan, baina uste dut argi nabarmendu behar dela gorputz lodia ez dela akats bat, ez dela arazo bat bere horretan. Garrantzitsua iruditzen zait abiapuntu hauxe: gure gorputzak posible dira. Zeren, zergatik da ba beste gorputz hori gorputz normala? Normaltasuna nola eraikitzen den aztertuz, eta gero zalantzan jarritz beste gorputz hori zuzena dela eta gurea ez, eraikitzen den uneen bertan desaktibatzen da araua.

Orain dela gutxi, *Epistemología rumiante* (Epistemología hausnarkaria) izeneko fanzinea argitaratu zenuen. Kontatuko zenidake nondik datozen hausnarkariekin lotutako ideia horiek?

Hasteko, harreman historikoa dut behiekin. Argentina hegoaldeko landa-eremu

batekoa naiz, landa-eremu oso zabal batekoa: gure etxearen inguruan, hainbat eta hainbat kilometrotan, ez zegoen beste etxerik. Beraz haurra eta nerabea nintzela, harreman handiagoa izan nuen behiekin gizakiekin baino.

Izan ere, behiek lau urdail dauzkate, eta lauetan barrena erabiltzen dituzte elikagaiak: horregatik esaten zaie hausnarkari.

Hausnarkarien ideiak balio zidan mantsoetasuna pentsatzeko; asko interesatzen zait botata egoteko keinu hori, bestelako denboratasun bat da. Zalantzan jarri nahi nuke zalutasuna, bizkortasuna eta eraginkortasuna ote diren gauzak egiteko modu egokia eta bakarra. Bestela egoteko modu bat sortu nahi nuen, poetikoki, zeina gutxienez baliagarria baitzait munduarekin daukadan harremana eraikitzeko. Pentsatu nahi dut geldotasuna posible dela, bestelako denboratasunetan bizi gaitezkeela, eta hortik abiatuturik proposatu dut beste metodo hau, apur bat mantsoa, apur bat huts egindakoa, bai behintzat emankortasunaren ikuspegitik.

Reggaetoiari deabrua kendu

Elkarrizketan aipatu ditugunez bestelako gairik ekarri nahi lukeen galdetu diot Massoni. Berehalaxe erantzun dit: "Reggaetoiak asko eman dit pentsamenduaren aldetik. Garrantzi handia ematen die gorputzari eta sexualitateari, eta uste dut gorputza apur bat desartikulatzeke aukera ematen digula, zurrin-zurrin egoteari uzteke aukera. Feminista txintxo batiak hor daude reggaetoiari epaitzen, munduko gauzarik matxistena balitz bezala, baina aztertu behar genuke zergatik ez diren beste musika-generoak berdin epaitzen, horiek ere matxismoz josirik baitaude, mundua bezalaxe. Uste dut reggaetoiaren aurkako arbuioa, batez ere, arrazista dela".

Pasadizo polit bat kontatzen duzu behien taldetasunaz: nola, txingorra botatzen duenean, lehenik korrika hasten diren larrean dauden behi guztiei abisu emateko, eta gero guztiak elkarren babesean biltzen diren, buruak beherantz jarrita, harriek ez diezaieten jo larru gogorrean baino.

Behia ez dago sekula bere bakardadean, eta niretzat ideia hori funtsezkoa da. Aliatuak funtsezkoak dira. Bestalde, fanzinean badago beste ideia bat: "Ez dakizu nola esan, baina hausnarrean zabiltza". Hauxe adierazi nahi dut: ez dago zertan segurtasun eta argitasun erabatekorik agertu beti, sentitu ditzaitezke gauzak, lau urdailetatik pasatu, eta ikusi ea gero zer ateratzen den. Metodo hausnarkariak nahiago ditu intuizioak, ez hainbeste asmoak. Hausnarkaria, gainera, totela izan daiteke: horixe da kontua, totelka hitz egin daiteke, hitz egin daiteke munduko segurtasun guztiaren jabe izan gabe, baina garrantzitsua da ahots horiek egotea. Bestelako ahotsak behar ditugu, eta aukera eduki behar dugu bestelako kontakizunak eratzeke, kontakizun berriak sortzeke. ■



Subirano... zer?

Asteotan subiranotasunaz ari gara han-hemenka, berau aldarrikatuz eta defendatuz batzuk, ukatu eta zokoratuz beste batzuk. Subiranotasun kontzeptua mitoa dela esan ohi du Immanuel Wallerstein soziologoak. Termino hori erabiltzeak mundu-sistema honetan ondorio desberdinak ditu, erabiltzen dugun unearen arabera, ez baita berdin Donald Trumpek edo Carles Puigdemontek erabiltzen dutenean. Terminoak berez ez du ezer esan nahi, erabat ados nago. Izan ere, kontzeptua edukiz jantzi beharra dago, testuinguru batean kokatu. Berdin gertatzen da ere erabakitzeak eskubidearekin: gehiagorik zehazten ez dugun bitartean lausoa da eta kontzeptua gorpuzteko esparru eta lurralde jakinetan lekutu beharra dago.

Kataluniara joan gabe, goazen lan harremanen euskal esparrura eta kokatu gaitezen ostalaritza sektorean. Sektore horretan 45.000 pertsona inguru ari dira lanean Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE). Horietatik 12.000 langile ospitale, erresidentzia eta eskoletako jantokietan ari dira "kolektibitateak" izeneko azpimultzoan.

Azpisektore jakin horretan EAEko Ostalaritzako I. Akordio Markoa sinatu zuten sindikatu nagusiek joan den urtarrilean. Honen bitartez Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako ostalaritzako langileei lehentasunez hemengo hitzarmen kolektiboa aplikatzea adostu zen. Akordioa, aseguru modukoa da, hemengo langileei hemen adostutako itunak aplikatuko zaizkiela bermatu eta Madrildik etor litezkeen murrizketen aurrean babesteko, bertako lan harremanak bertan erabaki daitezen. ELA eta LAB dira sinatzaile nagusiak eta sektore horretan ordezkariak %77,48a dute beren esku. Zalantzarik gabe, gehiengo oso zabala ordezkatzeko dute, edozein legebiltza-



Aiala Elorrieta
EKONOMIALARIA

EAEko lehendakari Iñigo Urkullu jaunak autogobernuaz asko hitz egiten du, solemnitaterik handiz. Baina jarrerak ekintzekin neurtzen dira eta lehendakariak akordioak egiten jarraitzen du norekin eta lan esparruko autogobernuaren aurka egiten duten sindikatuarekin

rretako gehiengo kualifikatua baino are zabalagoa.

Bada, gure lan harremanen esparruan gutxiengo diren sindikatuak, CCOO-ek eta UGT-k alegia, erabakitzeak eskubidearen aurkako eraso bene-

tan larria egin dute: Ostalaritzako I. Akordio Markoa inpugnatu egin dute estatuko patronalarekin batera. Jokaldi horrekin, lan harremanen euskal esparrua ukatu eta estatuko lan hitzarmenak inposatu daitezkeen eskatzen ari dira. Inpugnazioak aurrera egitekotan, latza izango litzateke kolektibitateetako langileentzat: hemengo lan hitzarmenen ordezkariak aplikatzeak soldataren %50eko murrizketa ekar dezake, eta urtean 50 lan ordu gehiago egin beharra. Finean, estatuko sindikatuak estatu mailako marko baten defentsan, ordezkariak sindikala monopolizatzea dute helburu. Estatalizazioak lan baldintzen homogeneizazioa dakar berarekin eta CCOOek eta UGTk horren aldeko apustu garbia egiten dute, baita langileen kalterako denean ere.

EAEko lehendakari Iñigo Urkullu jaunak autogobernuaz asko hitz egiten du, solemnitaterik handiz. Baina jarrerak ekintzekin neurtzen dira eta lehendakariak akordioak egiten jarraitzen du norekin eta lan esparruko autogobernuaren aurka egiten duten sindikatuarekin. Ez hori bakarrik, gurean gutxiengoak duten sindikatuarekin hitzarmenak adosten segitzen du, gehiengo sindikala ukatuz eta zokoratuz. Aliantza horiekin joko demokratikoaren eta autogobernuaren aurka egiten du aldi berean. Baina lehendakaria eroso dago, hain zuzen ere aliantza horrek bake soziala bermatzen diolako.

Eta bai, Wallersteinek arrazoi du: erabakitzeak eskubidea oso kontzeptu lausoa da. Ez da berdin Urkullu erabiltzen duenean edota euskal gehiengo sindikalak gauzatzen duenean. Galde diezaiegun bestela, kolektibitateetako langileei ea ezberdintasunik ikusten duten. Lehendakariak entzungor egiten duen arren, berak ere badaki, negoziatio kolektibo propiorako eskubiderik gabe, autogobernurik ez dagoela. ■

Metodo zientifikoak

rail oro, ohi den bezala, gertaera meteorologiko garrantzitsuak izaten dira.

Azken 30 urteotako irailetan Hego poloan gertatzen den ozono geruzaren ahultzea kezka iturri bilakatu zaigu. Aurten ahultzea gertatu bada ere, ohikoa baino txikiagoa izan da zorionez. Ezin ahaztu ere irailetan Artikoa gertatzen dena. Irail erdiaren inguruan Artikoko izozte maila urteko mailarik beheerenean aurkitzen da eta, urtez urte, maila hori hain joan da beherantz non gero eta gehiago diren, hogeitaz barru Artikoko izotza urtuko dela esaten dutenak. Aurten mendeko zortzigarren urte txarrena izan da izotz mailari dagokionez, beraz, azken urteotako joera apurto eta datu on samarraren aurrean gaudela esan genezake.

Aipatu ditugun bi kasuokin Donald Trump presidenteak aitzakia izango luke kanpainan esandakoa berresteko, alegia munduan ez dagoela arazo ekologiko seriorik. Baina beste gertaera batzuk ere izan dira eta horiek ez dira Trumpen aldekoak izan, Kariben inoizko urakanik bortitzenak izan baitira eta azkenaldi honetan Kaliforniako suteek urakanek baino heriotza-kopuru eta kalte handiagoak eragin baitituzte.

Aurtengo gertaera hutsekin ezin dugu ondorio orokorrik atera, bai ordea azken hogeitaz edo hogeita hamar urteetako datuen historikoek beste ezer adierazten ez duten bitartean.



Joxerra Aizpurua

INDUSTRIA INGENIARIA

Metodo zientifikoaren bidezko datuen analisiek ez dute inoiz %100eko ziurtasuna islatuko, beraz gertaeren analisisan zientzialariek patxadaz egin badezakete lan ahalik eta emaitzarik errealistenak lortzeko, gizarteak hipotesirik txarrena ekiten ahalegina egin behar du

tako datuak aztertzen baditugu. Hortaz, ozono zuloarena txarrena ez doala ikus dezakegun bezala, Artikoko salbuespena hartu behar dugu aurtengoan,

datuen historikoek beste ezer adierazten ez duten bitartean.

Joerak behin-betikotzat hartzeko zenbaterako luzerako serieak behar ote ditugun batek baino gehiagok egingo du galde. Azken ehun edo berrehun urteotako datuak bilduta izango bagenu, agian ozonoaren balioak eta Artikoko azken datuak anekdota hutsa izango lirateke, eta hortaz Trumpenak zilegitasun handiagoa izango luke. Gertaera bakoitzak dituen berezitasunen arabera izan behar du datu segida esanguratsuak, astronomia mailako gertaeren aldakortasuna susmatzeko milaka urtetako datuak behar izango ditugun bezala, ibai baten poluzioa detektatzeko egun bat nahikoa izango baita.

Metodo zientifikoaren bidezko datuen analisiek ez dute inoiz %100eko ziurtasuna islatuko, beraz, gertaeren analisisan zientzialariek patxadaz egin badezakete lan ahalik eta emaitzarik errealistenak lortzeko, gizarteak hipotesirik txarrena ekiten ahalegina egin behar du hasieratik, nahiz eta askotan hori ez bete; giza sena historian mamitutako jakinduria den neurrian, kasu egin behar diogula uste dut, hau da, bihotzak agintzen duenari kasu egin behar diogu, batez ere buruak informazioa prozesatzen denbora luzeegia behar izaten duenean. ■

 ARGIA

943 371 545

publiz@argia.eus

www.argia.eus/tarifak

**Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia.**

Jarri publizitatea hemen

Turismoa, babofobia eta errepublika



Jose Ignazio Ansorena
TXISTULARIA

Udako gaia izan da. Auzotarren purrustade-kin batera, Ernai-ko neska-mutilek –interés politikoak tartean jakina– turismo eredua- ren aurka kanpaina abiatu eta, arrapaladan, ar- tikulu, elkarrizketa, adierazpen uholdea gertatu zen: *Ama maite turismoa, egiguzu lagun* kantatu zuten aho batez gure agintariak.

Masa turismoak –horretaz ari baikara noski–, orde, adituen ikuspuntutik, ez du dena bere alde. Epe laburrean diru irabazi handiak uzten omen ditu poltsa pribatuetan. Eta luzera, diru pu- blikoari oso garesti gertatzen zaio, sortzen dituen kalte ekologiko eta ekosozialengatik.

Hortxe dute banpiro diruzaleek xurgatze tenta- zio bizia, zeina asetzeko arau guztien azpitik eta errespetu guztien gainetik pasatzeko prest izaten diren. Herritarren artean eraikitako elkarbizitza hondatu behar bada ere. Gure erakundeek, sarri erakutsi dutenez, ez dute ahalmenik horiei aurre egiteko eta, ohi duten epelkeriarengatik, ezta gogo handirik ere.

* * *

Turismoaren aldeko kanpaina sutsuan tankera askotako memelokeriak irakurri ahal izan dira. Harkaitz Millan, *Basquetour*-reko zuzendariak idatzi zuen ederrena: *Turismofobia es Xenofobia*. Esaldia Bartzelonako Jaume Colboni zinegotzi sozialistari kendu zion eta Rafael Hernando PPko

bozeramaileak ere bereganatu zuen. Noski, kexu daudenak deskalkifikatzeko balio du, arazoaren muina eta politikarien erantzukizuna ukitu eta aipatu gabe. Donald Trump turismo negozio as- koren jabe xenofoboak ere sinatuko luke.

Turismoa gripea bezalakoa da. Ez dago ihes egiterik, giroan da. Txertorik ez baduzu hartu eta gripeak harrapatu bazaitu, badakizu: atsedena, paracetamola, ohea, likido asko... Bestela oso larri bihur daiteke. *Gripe espainolak*, orain ehun urte, 20 milioitik gora pertsona hil zituen mun- duan.

Gure turismoan horixe gertatu da: ez txertorik ezta zainketa palatiborik ere. Eta herritarrek, kokoteraino eginda, builaka hasi direnean, goi mandatariek mezu hotsandikoez erantzun digute zer ari garen ez dutelako ulertu. Mantsoago esan- da: ez ga-ra ba-bo-ak, ez du-gu tu-ris-mo fo-bia -rik. Baina baboak garela sinetsarazi nahi diguten baboei *babofobia* diegu.

* * *

Kataluniaren independentziaren kontua larri oso zaie batzuei. Larriagoa Errepublika izatea. Monarkiaren aterkia amarru askoren estalgarria baita. Niretzat plazerik ederrena Feliperen aur- pegia ikustea izan da. Ezin disimulatu: *“España es una unidad de destino en lo universal”*. Baboak, *Go home!* ■

Egunkariarena



Edu Zelaieta
IDAZLEA

Buzoiaren ahoak xerratua du egunkaria, gure harridurarako. Urteak dira *Berria* etxe- ko postontzian jasotzen dugula, eta gaur, lehenbiziko aldiz, paperezko pieza bakarra hartu beharrean bi puska hartu ditugu. Testuinguru ho- rretantxe etorri da semearen galdera xaloa, ezus- tean: “Guri bakarrik gertatu zaigu edo gainerako bizilagunek ere honela jaso dute egunkaria?”. Pedagogia egiteko aukera edota beharra suertatu zait orduan: “Guk egunkaria jasotzeak ez du esan nahi eraikinean bizi diren beste pertsonak ere jasotzen dutenik”. Mutikoaren harridura *in cres- cendo* doa, aitaren azalpenak aditu ahala. Nonbait

ere, oraintxe ari da ikasten egunkaria geuk baka- rrik hartzen dugula atari osoan, eta horretarako ordaindu egiten dugula gainera!

Helduon irrimurria eragiten ahal duen pasar- tea da beharbada. Nolanahi ere, nago *nagusio*k ez dugula hain ezberdin jokatzeko zentzua; izan ere, antzekoa izaten ahal da gudan aktibatzen den mekanismoa: geure errealitatearen arabera interpretatzea besteena.

Gure buzoia ezberdina dela ikasten hasia da semea. Eta segur aski, nahiz eta hala ez adierazi, guraso erromantikoak dituela: postontziak xerra- tzen ahal duen papera irakurtzen, eta euskaraz! ■



Sendagaiak baimentzeko prozedura

Botika berrien bermea, gero eta ahulagoa



Unai Brea
@unaibrea

Ez dago sendagai erabat segururik, eta horregatik, botika berri bat merkatura atera nahi duen konpainiak frogatu egin behar du dakarren onura handiagoa dela sor lezakeen kaltea baino; azken hamarkadetan, ordea, "lasaitu" egin dira hori ziurtatzeko erabiltzen diren irizpideak. Une honetan mahai gainean dago sendagaien onartze-prozedura laburtzeko europar erregulatzailleen proposamen bat, eta horrek ekar dezakeen arriskuaz kezka agertu dute osasungintzaren alorreko ahots askok.

Europar Batasunean sendagaiak merkaturatzeko baimenak eman edo ukatzen dituen organismoa Medikamentuen Europako Agentzia da, EMA ingelesezko sigletan. AEBetan FDAk egiten du lan hori, eta munduko herrialde gehienetan bi horiek esandakoari men egiten zaio orobat. Baina sistemak ez du beti horrela funtzionatu. 60ko hamarkadaren erdira arte oso proba gutxi eginda merkaturatu zitezkeen sendagaiak. Talidomidaren eskandaluak aldarazi zuen egoera.

Talidomida 1957tik 1963ra saldu zen medikamentu bat da, emakume haurdunei goragalea arintzeko ematen zitzaiena. Hasieran oso arrakastatsua izan zen Europan –AEBetan ez zen merkaturatu, FDAk baimena ukatu baitzion–, baina oso ondorio larriak utzi zituen: milaka ume malformazio larriekin jaio ziren haren erruz. Tragediari erantzunez, mendebaldeko agentziek sendagaiak baimentzeko baldintza modura ipini zuten gaur egun ezagutzen ditugun proba-saio klinikoak egitea.

"Baimenak emateko baldintzak gero eta zorrotzago bilakatu ziren –hitzaren zentzu onenean– 80ko hamarkadaren hasierara arte", azaldu digu Juan Ervitik, Nafarroako Osasun Saileko Sendagaien Ebaluaziorako zerbitzuburuak, "baina ordutik hona desarautzea gertatu da; konpainia farmazeutikoei gero eta gutxiago exijitzen zaie sendagai bat merkaturatu ahal izateko".

Ervitiren esanetan, desarautze prozesuko itu garrantzitsu bat Nazioarteko Harmonizazio Kontseiluaren (ICH) sorrera izan zen, 1990ean. AEB, Europar Batasuna eta Japoniako erregulazio agentziek osatzen dute ICH, baita herrialde horietako industria farmazeutikoko ordezkariak ere.

"Deigarria da hori", dio Ervitik, "ikasle batek gerora berak gainditu behar duen azterketaren diseinuan parte hartzearen parekoa da". ICHk erabaki garrantzitsuak hartzen ditu sendagaien erregulazioaren alorrean, ondoren herrialde bakoitzeko araudian txertatzen direnak.

Hobea izatetik okerragoa ez izatera... edo bai

Lehen, sendagai baten sortzaileek frogatu egin behar zuten merkaturatu nahi zuten konposatua eraginkorragoa zela gaitz bererako jadanik erabiltzen zirenak baino. "Baina une batetik aurrera", diosku Ervitik, "erabaki zen aski zela okerragoa ez izatea". Horri gehitu behar zaio "okerragoa ez izatearen" interpretazioa malgugia dela, nafar farmazialariaren esanetan: "Botika berria pixka bat okerragoa izanda ere maila berekotzat jotzen da, ontzat ematen baita kalitate galera txiki hori ez dela klinikoki garrantzitsua. Baina diferentzia neurtzeko era oso subjektiboa eta eztabaidagarria da".

Beste batzuetan, berriz, onartu egiten da saiakuntza klinikoetan sendagai berria plazeboarekin bakarrik konparatzea, eta ez da aztertzen probatzen ari den molekulak zenbateko eraginkortasuna duen dagoeneko merkaturatutako erreferentziatzko konposatuekin alderatuz.

Jokatzeko modu eskuzabalegi horren ondorioz, sarritan merkatura ateratzen dira beren aurrekariak baino eskasagoak diren medikamentuak, eta gainera lekua kentzen diete haiei, konpainia farmazeutikoei sendagai berriak sustatzen dituztelako. Izan ere, merkaturatzen diren alternatiba zaharragoak, patentea agortuta egonik, bertsio generikoan sal daitezke maiz, eta ez diete enpresei irabazi handirik ekartzen.

Kasurik onenetan, botika berrien eskutik datorren hobekuntza gutxitan izaten da esanguratsua, laborategi pribatuek sortzen dituzten molekula berri gehienak jada existitzen direnen

aldaerak izan ohi dira-eta, gaixoentzat oso abantaila txikiak baizik ez dakartzatenak (ikus hurrengo orrialdeko koadroa).

Segurtasun gabezien aurrean malgu

Sendagai berrien segurtasunari buruzko irizpideak ere apaldu ditu EMAk, Juan Ervitiren esanetan: "Gaur egun, onartzen da merkatura irtetea proba-saio klinikoetan segurtasun arazoak izateko zantzuak agertu dituzten zenbait botika". Kasu horretan, molekula berria komertzializatzeko baldintza modura jartzen da Arriskuen Kudeaketa Plana delakoa egitea behin kalera aterata; besteak beste, IV faseko ikerketak egitea aurreikusten du plan horrek. Hau da, sendagaiak gaixoengan dituen ondorioak behatzea hura merkaturatzen hasi eta gero.

Kontuan izan behar da saio klinikorik handienean ere askoz jende gutxiagok probatzen duela botika gero berritan hartuko dutenek baino. Gerta liteke efektu kaltegarri bat 5.000 edo 10.000 hartzaitetik batengan agertzea; saiakuntza fasean nekez emango zaio sendagaia hainbeste pertsonari, horregatik komeni da substantzia berrien ondorioak behatzea merkaturatu ostean ere. Hori da, hain justu, Juan Ervitik zuzentzen duen zerbitzuaren zereginetako bat.

"Zoritarrez, Arriskuen Kudeaketa Planak agintzen dituen IV faseko ikerketa horiek gehienetan ez dira egiten", kritikatzeko du hark, "luzapenak eskatzen dira, atzerapenak izaten dira... Behin merkaturatu, oso zaila da ekoizleari mota horretako azterketak egiteko eskatzea".

Adibide modura, gogora ekarri du 2014an baimendutako BGBKrako (biriketako gaixotasun buxatzaile kroniko) medikamentu bat, Anoro izenekoa. Proba-saio klinikoetan ikusi zen hura hartzeak handitu egin zezakeela bihotzeko edota burmuineko arazoak izateko arriskua. EMAk argi berdea eman zion merkaturatzeari, baina ekoizleari –GSK konpainia– IV faseko ikerketa egiteko baldintza ezarri, arriskua neurtze aldera.

"Arazoa da", kexu da Erviti, "azterketaren emaitzak aurkezteko epemuga 2024an jarri diotela konpainiari, baimena ematetik hamar urtera; ordurako, segur aski, enpresak ez du berebiziko interesik izango produktu horrekiko".

Azkartzeak ez du kalitatea hobetzen

Duela urte gutxi arte, sendagaietarako baimen mota bakarra zegoen, saiakuntza klinikoan III fasea gaindituta ematen zena. Baina agentzia erregulazaleek bestelako bideak ireki dituzte zenbait botika merkaturatzeko, ebidentzia zientifikoa ahulagoa izatea onartzen dutenak.

Bide horietako bat "salbuespenezko baldintzetan" emandako baimenak dira. Juan Ervitik azaltzen duenez, batez ere sendagai "umezurtzei" ematen zaizkie, hau da, zenbait gaixotasun arraroren tratamendu gisa erabiliko direnei. "Gaixo kopurua oso txikia denez, ontzat ematen da aurretiazko ikerketak kalitate txarragoak izango direla, eta bai eraginkortasunari bai segurtasunari buruzko datuak ez direla nahi bezain onak izango".

"Baldintzapeko baimena" izenekoa da azken urteetan zabaldu den ildo bereko beste lizentzia mota. "Une batean, EMAk eta FDAk erabaki zuten azkartu egin behar zela zenbait sendagai merkatura irteteko prozedura", dio Ervitik, "bereiziki bizia arriskuan jartzen duten edota oso ahulgarriak diren gaitzen aurkakoak". Azkartzeak esan nahi du proba-saioen II fasea gainditzea –hortaz, pertsona gutxiengan aztertzea– aski dela botika berria merkaturatu ahal izateko.

"Horrek badu alde ona, eta jendartean arrakasta du, teorion gaixoentzat mesedegarria delako alternatiba berriak lehenbailehen eskura izatea, agentzia erregulazaleak argudiatzen ari diren bezala, baina praktikan ikusten ari da neurriak, oro har, ez duela onurarik ekarri", uste du Ervitik. Mota horretako baimenak minbizia tratatzeko medikamentuei ematen zaizkie gehienbat; Europako Onkologia Elkartearen aldizkarian argitaratutako artikulua baten arabera, botiken merkaturatze epeak nabarmen laburtu izanak ez die gaixoei abantaila terapeutiko aipagarriarik ekarri.

Antzeko ondorioak dituzte berriki egindako beste ikerketa batzuek. *British Medical Journal* aldizkariak (BMJ) urri hasieran argitaratutako artikulua baten arabera, Europako EMAk 2009 eta 2013 bitartean onartu zituen minbiziaren aurkako sendagaien %57k (39 guztira) ez zuten frogatuta, merkaturatzeko unea, gaixoen biziraupena luzatu edota bizi-kalitatea hobetzen zutenik. Sei urte ondoren, 39etatik seik baino ez zuten demostratuta hobekuntzaren

SENDAGAI BERRI GEHIENAK, EZ HORREN BERRIAK

"Araudia biguntzen hasteaz gain, 80ko hamarkadan beste aldaketa garrantzitsu bat eman zen: marketin sailek hartu zuten laborategi farmazeutikoen kontrola, sail zientifikoen ordez", dio Juan Ervitik. Horren ondorioa izango litzateke farmaindustriari maiz leporatzen zaion jokabide bat: inbertsio handiena sustapenean egin eta gutxi arriskatzea benetakoa aurrerapausoak ekarriko litzuketen baina garatzeko zail eta garestiak diren sendagaiak ekoizten.

Hala, egile ugari azpimarratu dutenez, konpainia farmazeutikoen kaleratzen dituzten medikamentu berri gehienak dagoeneko existitzen diren beste batzuen aldaera soilak dira, terapeutikoki oso hobekuntza txikia dakartenak, edo, ikusi dugunez, batzuetan ezta hori ere. Ingeleseko *me too* (ni ere bai) esaldia erabiltzen da halakoak izendatzeko.

"Horrela jokatzuz, nahiko erraz sortzen dituzte produktu berriak, hoguei urterako patente baten babespean", azaldu du Ervitik; "salmenta prezio altua ezartzea lortuz gero, diru asko irabazten dute. Na-

farroako Osasun Saileko langilearen esanetan, merkatura ateratzen denaren %85 mota horretako produktuak dira. "Gainerako %15 oso sendagai onak izaten dira, baina jendeak ez dakiena da horien biheren inguru AEBetako sistema publikoak garatzen dituela, ez laborategi pribatuak".

AEBetan funts publiko asko eskaintzen zaio sendagaien garapenari, eta legeak baimentzen du molekula garatu duen funtzionarioak patentea enpresa pribatu bati saltzea, gobernuak sositik jaso gabe. "Sistema horren bidez, farmazeutikek merke antzean erosi eta oso garesti saltzen dute"; dio Juan Ervitik, "AEBetako unibertsitate eta zentro publikoetan zertan dabilten behatzen ari dira etengabe".

Beste ondorio bat sendagai gehiegi egotea da. "Espainian 10.000 medikamentu finantzatzen du sistema publikoak", dio Joan-Ramon Laportek farmakologoak, "baina 400 inguru besterik ez dira behar. Nor da gai 10.000 gauza ondo ezagutzeko?".

SAIAKUNTZA KLINIKOEN LAU FASEAK

Saiakuntza edo proba-saio klinikoak sendagai baten garapenaren azken urratsa da. Laborategian lortu den molekula berria gizakiekin probatzean datza, eta lau fasetan banatuta dago:

I fasea: pertsona osasuntsu gutxi batzuei ematen zaie substantzia berria. Molekulak giza gorputzean zer nolako portaera duen behatzen da, baita toxikotasun zantzurik ba ote dagoen ere.

II fasea: I fasea gaindituz gero, tratatu nahi den gaixotasuna duten pertsonen 200 ingururi, gehienez ematen zaie konposatua, medikamentua zein dositan eraginkorra den neurtzeko, gehiegizko dosia zein den ezartzeko... Beste talde bati une horretan merkaturatu dagoen bo-

tika ematen zaio, edo plazeboa, molekula berriarekin konparazioa egiteko.

III fasea: ehunka edo milaka pertsonarekin egiten da, behin dosia ezarrita. Sendagaia benetakoa eraginkortasuna ezagutzeko da helburua, baita ordura arte atzeman ez den efektu kaltegarriarik dagoen behatzea ere. Lehen derrigorrezkoa zen fase hau gainditzea medikamentu berri baimentzeko; gaur egun, kasu batzuetan, aski da II fasea gainditzea, eta aukera hori zabaldu nahi dute europar agintariek.

IV fasea: sendagaia merkaturatu eta gero hartzaileengan dituen efektuak aztertzean datza. Oso portzentaje txikian ematen diren bigarren mailako efektuak atzemateko balio du, baita ere botikaren eraginkortasuna epe luzean neurtzeko.



bat zekartenik. Oso antzeko kopuruak –apur bat okerragoak, izatez– aurkitu zituen 2015ean AEBetan egindako ildo bereko azterketa batek. Kontuan izan behar da minbiziaren aurkako tratamendu berriek batez beste 75.000 euroko kostua dutela urteko.

Sendagai berriek hobekuntzarik dakarten kasuetako askotan hobekuntza hori hutsaren hurrengoa izaten dela ondorioztatu dute beste ikerlari batzuek. Esaterako, gaixoen biziraupena batez beste pare bat hilabetez luzatzea –minbizirako tratamenduez ari gara betiere–; horri gehitu egin behar zaio onura txiki horiek, maiz, errealitatearekin bat ez datozen gaixo taldeekin egindako proba-saioetan behatu direla: gaixo gehienak baino gazteagoak izan ohi dira, eta aztertzen ari den gaitzarekin batera osasun arazo gutxi dituztenak.

Hain zuzen, saiakuntza klinikotarako laborategiek aukeratzen dituzten pertsonak gero benetan botika hartuko dutenen oso desberdinak izatea da gaur egungo sendagaien baimentze-sistemak duen beste hutsune handi bat, Juan Er-

Baldintzapeko baimen gehienak minbizirako tratamendu berriei ematen zaizkie gaur egun. Hainbat ikerketaren arabera, merkaturatze prozedura azkartzeak ez du eragin aurrerapauso terapeutiko esanguratsurik.

ARGAZKIA: JUSTIN SULLIVAN / GETTY IMAGES

» **JUAN ERVITI, NAFARROAKO OSASUN SAILEKO LANGILEA:**
“80ko hamarkadatik desarautzea eman da; agentzia erregulatzaleek gero eta gutxiago exijitzen diete konpainia farmazeutikoei sendagai bat merkaturatu ahal izateko”

vitiren esanetan: “Adinekoak baztertzen dituzte, patologia bat baino gehiago dutenak ere bai... Fikziozko laginak dira. Horregatik gero, praktikan, ikusten da sendagai askok aurreikusitakoa baino askoz arazo gehiago ematen dutela behin merkaturatuta”. Joan-Ramon Laportek, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko farmakologia katedradunak, honako adibidea ematen du: “Bihotzekoa tratatzeko saiakuntza klinikoen %70etan ez da onartzen 70 urtetik gorakoek parte hartzea, baina bihotzekoak jota hildakoen %70 adin tarte horretan daude.”.

Azken urratsa: egokitze bideak

Une honetan, desarautzearen bidean beste koska bat gehitu nahian dabil EMA europar agentzia, osasungintzako profesional eta talde ugari salatuta duteenez. *Adaptive pathways* esaten zaio ingelesez, euskaraz “egokitzen bideak” itzul genezake. “Egokitzen bideak” darabil Juan Ervitik. Hark esplikatu digunez, baldintzapeko baimena edozein sendagai motari eman ahal izateko aukera zabaltzea lekarke *pathways*

direlakoak indarrean jartzeak, beti ere “ase gabeko beharrian klinikoak dau- den kasuetarako”.

Horren arabera, proba-saioen II fasea gainditze hutsarekin merkaturatu ahal izango dira botika berriak, III eta IV fa- seetan eskuratu ohi den ebidentziaren aurkezpena etorkizunerako utzita.

Egokitzapen bideak proba pilotu bi- dez aztertzen ari da Europa. EMAk pro- ba horien balorazio positiboa egin du, eta beraz baliteke laster araudian txer- tatzea baimen figura berria, profesio- nal ugari kezka azaldu arren. Industria farmazeutikoaren aspaldiko nahia ase- ko du horrek, gaur egungo baimentze sistema luzeegitza baitute. Sektoreko konpainiek eta zenbait gaixo elkarte- k, besteak beste, argudiatzen dute gaur egungo erregulazio erdua ez dela ja- sangarria, eta paradigma aldaketa alda- rrikatu dute, bizitzak salba ditzaketen botika berriak lehenbailehen gaixoen esku ipini ahal izateko.

British Medical Journal kazetak abuz- tuan argitaratutako artikulu batek kontatzen du industriak finantzatuta- ko NEWDIGS *think tank*-ari zor zaiola

» Europar Batasunean ezarri nahi duten baimen figura berriarekin, oso jende gutxirekin probatutako sendagaiak merkaturatzeko atea askoz gehiago zabalduko da

EMAk bere egin duen arautze eredu berria. Artikuluak, Peter Gotzsche biologo eta medikuak zuzendutako lantalde ba- tek sinatuta, gogor kritikatzan du EMA- ren asmoa, oroitaraziz II fasea arrakas- taz gainditzan duten konposatu berrien erdiak huts egiten duela III fasean.

Osasun publikoari erasoa?

“[EMAk] ziurtzat ematen duen beste gauza bat da behin sendagaiok merka- turatuta azkar egin ahal izango direla haiei buruzko ikerketa kliniko sendoak”, irakur daiteke *BMJ*-ko artikuluan. Egi-

leak ez datoz bat, ordea: “Europar Ba- tasunean baldintzapeko baimenarekin kaleratutako sendagaien ebaluazioak batez beste merkaturatzetik lau urtera osatu ziren, erdia atzerapen nabarmenarekin”. Ondorio nagusi modura, si- natzaileek diote EMA industriaren pre- siopean ari direla baimen prozedurak azkartzen, eta egokitzapen baimenak aplikatuz gero arriskua dagoela botikak merkaturatzeko euren onura-kalte ba- lantzea ondo ezagutu gabe.

“Europako sendagaien baimentze sis- tema berria, osasun publikorako arris- kua” izenburua duen artikulua sinatu du osasun gaietan espezializatutako Miguel Jara kazetari espainiarrak. “Baieztapen horrekin nahiko ados nago”, diosku Juan Ervitik. Iatrogenia, hau da, sendagai bat hartzearen ondorioz hiltzea, dagoeneko Mendebaldeko heriotza kausa nagusie- takoa dela gogorarazi digu: “Ingelese- z badago esamolde bat: elefantea gelan. Eta hau elefante handi bat da; botikekin sendatu egiten dugu baina baita asko hil ere, eta inork ez du ikusi nahi. Medikun- tza sakralizatu dugu eta ez dugu entzun nahi inperfektua denik”. ■

Adi bardularrak,
karistiarrak eta
autrigoiak: baskoien
hilabetekari berria
kalean da!



Info gehiago:
ELSALTODIARIO.COM



DROGAREN AURKAKO GERRAREN IZENEAN

Rodrigo Duterte presidenteak zin egin zuen Filipinetako txoko guztiak “garbituko” zituela. Esan eta egin. Droga kontsumitzeaz eta saltzeaz susmagarri ziren 12.500 pertsona hil dituzte jada indar paramilitarrek.



Ane Irazabal Elkorobarrutia

@Anelrazabal

ARGAZKIAK: COSIMO CARIDI

Manilako kaleak ez dira lehen bezain abegitsuak. Ez, behintzat, kalean bizi direnekin. Duela urte eta erditik nekez ikus daiteke espaloietan edo izkina ez-kutuetan lo egiten duen herritarrik. Manilako kaleetan beldurra zabaldu da. Izua. “Imajinatu plaza baten erdian zaudela, bat-batean gizon ezezagunak agertzen direla eta tiroz hiltzen zaituztela. Poliziak ez du ezer egingo gertatutakoa ikertzeko, drogen inguruko afera bat delakoan itxiko du kontua. Hori da nire

anaiari gertatu zitzaiona”. Hilketxaren aurrean, Imeldak ez daki zer egin. Anaia hil zutenetik bi hilabete igaro dira eta ez dauka ehorzketa ordaintzeko dirurik. Imelda eta bere familia Manila kanpoaldean bizi dira. Han, emakume eta haur aurpegia ditu pobreziak. “Hilketxa kalearen erdian jarri dut eta ehorzketarako laguntza eskatzen hasi naiz”, azaldu du lotsatuta Imeldak. Bizilagunek bertasunez erantzun diote eta karta-jokoan hasi dira dirua biltzeko.

Filipinetan izen propioa dauka drogaren aurkako gerrak: Oplan tokhang. Urte eta erdi igaro da Rodrigo Duterte presidenteak *shabu* edo metanfetaminaren kontrako gurutza hasi zuenetik. Ordutik, 12.500 indarkeriazko heriotza zenbatu dira kaleetan. Gehienak legez kanpoko exekuzioak dira, poliziak edo ordaindutako hiltzaileek egindakoak. Presidenteak harrotasunez defendatzen ditu: “Nire agindua da hiltzera tiro egiteko. Ez naute arduratzen giza eskubideek.

» **EDWIN, DROGA SALTZAILEA:**
 “Narko-estatuan bizi gara. Dutertek ez du ezer egin benetako trafikatzailen aurka borrokatzeko, metanfetaminaren salerosketarekin aberastu diren enpresariak harrapatzeko”



Kaka zaharra adina inporta zait zer esaten duten. Drogen aurkako gerra da hau”.

Lider zigortzailea

Hedabideek “Asiako Donald Trump” baitailatu dute Duterte. Haren tonu drakoniar, lohi eta erasokorrak antz handia dauka Ameriketako Estatu Batuetako presidentearen jarrerarekin. Filipinetako gobernuburuak ondo baino hobeto ezagutzen du legaltasunaren eta ilegal izatearen arteko marra fina. Izan ere, fiskala izan da eta 22 urtez Davao hiriko alkatea. Dutertek agindu bitartean, Filipinetako hiririk arriskutsuena izatetik seguruena eta garbiena izatera pasa zen Davao. Zehar-ondorioa: hirian ezaguna zen “heriotzaren eskudroia” talde paramilitarrak 1.400 lagun hil zituen, tartean drogazaleak, kazetariak eta oposizioko kideak. Eskudroiko bi kide ohik salatu dute Duterteren aginduak jarraitzen zituztela, baina justiziak ez du inoiz frogatzerik izan presidentearen eta talde paramilitarraren arteko harremana.

Edonola ere, Duterte indar handiarekin aurkeztu zen 2016ko hauteskunde orokorretara, “etxean egindakoa herrialde osora zabaltzeko asmoz”. Ez zen faborittoa eta ez zuen bozak irabazteko esperantzarik. Baina herritarrak nazkatuta zeuden klase politiko ustelarekin, hain zuzen, hamarkada luzez herrialdea gidatu zuten betiko familiekin. Hautesleek Manilako botere politikotik kanpo zegoen aurpegia aukeratu zuten.

Filipinetako presidenteak lotsarik gabe onartu du opiazoeekiko menpekotasuna izan duela eta horrek min handia eragin diola. Hortik datorkio, agian, shabuaren kontrako obsesioa. Izan ere,

drogaren aurkako gerrak kutsu sadikoa du hasieratik. Dutertek gustuko du lider odoltsu eta krudelaren irudia elikatzea. Zaila da esan dituen basakerien artean hierarkia bat sortzea: “Hitlerrek hiru milioi judu hil zituen. Filipinetan hiru milioi drogazale daude, pozik sarraskituko nituzke guztiak” edo “drogazaleak hil ditut, poliziarik erakusteko beraiek ere berdina egiteko gai direla” dira haren esaldi polemikoetako batzuk.

Negozio handia

Inork ez du zalantzan jartzen shabua arazo larria dela Filipinetan. Dosi batek 50 zentimo balio du eta Osasun Ministerioak eskaintako datuen arabera hiru milioi herritarrek kontsumitzen dute. Halere, metanfetamina ez da gozamenarako erabiltzen. Mutil gazteek, txiroek eta eskulan gogorrek egiten dituztenek kontsumitzen dute gehienez. Shabua lan orduetan aktibo mantentzen laguntzen duen droga da eta oso erabilia eskulangileen eta *jeepney* (autobus kolektibo) zein taxi gidarien artean.

Geografiak zeresan handia du Filipinen eta metanfetaminaren arteko harreman estuan. Izan ere, shabua produzitzeko beharrezkoa den osagaia, pseudofedrina, fabrikatzen duen lehen herrialdea Txina da. Asia hegoaldeko oihañak, gainera, paraje aproposa dira laborategiak eraikitzeke eta droga sortzeko. Filipinetan 7.641 irla daude eta eremu askotan ez da inor bizi. Beharbada horregatik, Filipinetan ondoko herrialdeetan baino legedi malguagoa dute drogari dagokionean.

Dudarik ez dago estatuko estamentu asko aberastu direla metanfetaminak

eragin duen ekonomia paraleloarekin. 2016ko hauteskundeetan atarian, adibidez, drogen aurkako indar bereziek salatu zuten hautagai nagusiek Txinako enpresari haien diru-laguntza jaso zutela bozetara aurkezteko. Are gehiago, Quezom hiriko alkatea kartzelara bidali zuten bertako anbulantziak metanfetamina garraiatzeko erabiltzen zituelako. Txinatik ekarritako furgonetak ziren.

“Gehiegi dakit”

Edwin (izen faltsua) metanfetamina saltzailea izan zen urte luzez. Gameluak Manilako hainbat auzotako drogaren salerosketa kontrolatzen zuen bi polizien laguntzarekin. Egun, ordea, ezkutatuta bizi da. Edwinek uste du bi poliziek hil egin nahi dutela. “Gehiegi dakit”, adierazi du hotel bateko logelan gordeta. “Dutertek drogaren aurkako gerra hasi zuenean shabuaren negozioan zipriztinduta zeudenen zerrenda bat egitera derrigortu zuen polizia. Ideia zen piramidearen mailarik baxuena harrapatzea, alegia, metanfetaminaren kontsumitzaileak eta saltzaileak”, azaldu du burua berokiaz estalita. “Baina drogaren negozioan sartuta zeuden poliziak beldurtu egin ziren, haien gameluek gehiegi hitz egingo zutelakoan. Hala, hiltzaileak kontratatu zituzten arrastorik ez uzteko”. Edwinen hitzetan, arazoa ez da kontsumitzailearena edo gamelu arruntarena; shabua produzitzen duenarena baizik: “Narko-estatuan bizi gara. Dutertek ez du ezer egin benetako trafikatzailen aurka borrokatzeko, batez ere, metanfetaminaren salerosketarekin aberastu diren enpresari edo talde handiak harrapatzeko”.



Datuek arrazoa ematen diote. Drogaren aurkako gerra delakoagatik hildako gehienak kontsumitzaile arruntak dira, auzo xumeetako gazteak. Beste asko zeharkako biktimen zerrendan daude. Toki okerrean une okerrean egoteagatik hil dituzte. Eta hala ere, presidentearen ospeak gora egin du filipinarren artean. Hedabideek publikatu dituzten azken inkestek diote herritarren %85ak babesten duela bere kanpaina odoltsua. Presidentearen jarraitzaileak astero batzen dira haren alde egindako kontzertuetan. “Adore handia behar da drogari gerra deklaratzeko eta Filipinetako umeei etorkizun hobea eskaintzeko. Duterte ez da beste politikariak bezalakoak. Zin egindakoa betetzen du eta ez du eroskeriarik onartzen”, dio Mocha Uson pop abeslari famatuak.

Beldur isildua

Ekintzaile politikoak izututa daude presidentearekin. Robert Reyes apaiz frantziskotarrak Ferdinand Marcosen diktaduraren aurka borrokatu zuen eta erbestean bizi izan zen urte luzez. Filipinetara itzultzean heriotza-zigorra kentzeko kanpainari ekin zion eta 2007an lortu zuen bere helburua. Halere, egungo egoera oso arduragarria dela iruditzen zaio: “Hau ez da drogaren aurkako gerra, pobreen kontrako ehiza baizik”. Reyesen esanetan, presidentearen diskurtsoa klasista bezain arriskutsua da. “Funtsean zera da esaten duena: drogazaleek kaleak zikintzen dituzte, itsusi geratzen da eta horregatik bistatik kendu behar dira. Estetika kontua da”. Apaiz frantziskotarrak uste du akats handia dela Dutertearen komentarioak txantxa-



Ezkerrean, Dutertearen aldeko kanpaina. Eskuinean, Robert Reyes: “Duterteren errepresio-politika ez da drogaren aurkako gerrarekin amaituko. Hasieran drogazaleen aurka egin du, baina gero oposizioko ahots guztiak isiltzen saiatuko da”.

tzat hartzea, alegia presidentea zorotzat jotzea. “Duterteren errepresio-politika ez da drogaren aurkako gerrarekin amaituko. Hasieran drogazaleen aurka egin du, baina gero oposizioko ahots guztiak isiltzen saiatuko da”.

Beldurra ez da nolanahikoa. Milaka shabu kontsumitzailek eta saltzailek haien buruak salatu dituzte hilko dituzten beldur. Damutzen direnek errehabilitazio zentroetan izena ematen dute. Helburua da metanfetaminarekiko menpekotasuna kontrolatzea eta handik “garbi” ateratzea. Metodoak nahiko gogorak dira, ordea. “Zigor-gelatan sartzen gaituzte eta hasierako eguntan ezin gara handik atera”, adierazi du Mark gazteak. Shabu saltzaile ohia bizirik atera zen haren kontrako tiroketatik. “Nire bila etorri ziren eta etxeko leihotik salto egin nuen. Hurrengo egunean errehabilitazio zentro batera joan nintzen bi aldiz pentsatu gabe”. Orain garbi dago eta laster etxera itzuliko da, baina ez da seguru sentitzen. “Heriotzaren mamua garondan sentitzen dut”. Errehabilitazio programa da, agian, drogaren aurkako gerraren baitan Filipinetako presidenteak erakutsi duen gizatasun keinu bakarra. Hiltzailea edo salbatzailea? Dutertek berak argi dauka: “Agian historiak presidente ankertzat gogoratuko nau, baina ez zait axola”. ■



 **Guikuri**
landetxea

Guikuri
01138 Murua (Araba)
info@guikuri.com
www.guikuri.com

Telefonoak:
945 464 084
615 782 323 / 685 737 210

LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

Unibertsitateko ikasketak

ZERGATIK MATRIKULATZEN DIRA IKASLE EUSKALDUNAK GAZTELANIAZKO TALDEETAN?

Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen %75 inguruk euskaraz egiten du unibertsiterako sarbide proba. Euskal Herriko Unibertsitateko Komunikazio eta Gizarte Zientzietako Fakultatean, bestalde, euskarazko matrikulazioak ez dira %37ra helden. Zergatik? Zein faktorek eragiten dute horretan? Zein ondorio ditu?



Ainhoa Ortega Bretos

@ob_ainhoa

ARGAZKIA: LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

2015ean inkesta bat egin zuen Gizarte eta Komunikazio Zientzietako Fakultateko Euskara Batzordeak. Ikasleei planteatutako galderen bitartez, matrikulazio joeren zergatiaren ideia orokor bat ateratu zuen, eta hurrengo ikasturtean kanpaina bat jarri zuen martxan. Esku-orriak banatu zituzten matrikula egiten zeuden ikasleen artean, euskararen inguruko “aurreiritziak” deuseztatzeko: “Gaztelaniazko eskolatan kalitatea hobea da”, “lan irteerak zabalagoak dira gaztelaniaz ikasiz gero”, “euskarazko taldeak itxiagoak dira”, eta abar.

Kanpainak eragina izan zuen, bereziki Ikus-Entzunezko Graduan. Izan ere, %50etik gorakoa izan zen euskarazko matrikulazioa. Hurrengo ikasturtean, bestalde, berriro egin zuen behera.

Jaione Aiestaran kazetariak aztertu duenez, “hiztunaren hizkuntza gaitasuna oso kontzeptu dinamiko da, etengabe eraldatzen, mugatzen eta osatzen dena”. Hortaz, hainbat faktore dira hizkuntzaren erabileran eragiten dutenak. Komunikazio eta Gizarte Zientzietako ikasleen matrikulazio joeren

analisi egin du Aiestaranek. Euskarazko matrikulazioek izan duten bilakaerari arrazoiak eta zergatiak bilatzeko teknika kuantitatibo eta kualitatiboak erabili ditu, baita azken urteetako diagnostia planteatzeko ere.

Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak

Asko dira goi-mailako ikasketak gaztelaniaz ikasteko egon daitezkeen arrazoi edo zergatiak. Lehenik eta behin, gaztelaniaren presioa. Aiestaranek aztertutakoaren arabera, presioa handia da, bai euskararentzat mesedegarriak diren testuinguruetan, baita oztopatzailerak direnetan ere. Izan ere, Jone Hernandez EHUKo irakasleak dioenez, euskara ikasteko eskubidea ezagutu dute egungo gazteek, eta hori asimilatzen dihardute oraindik ere, euren familiarekin eta gizartearekin batera: “Nola txertatu gazte horiek ezagutzen dituzten testuingurua eta erreferenteak euren familiek eskaintzen dieten testuinguru eta erreferenteekin?”.

Horrez gain, ohiturak aipatu ditu Aiestaranek. Azaldu duenez, pertsonen hizkuntza-ohiturak lotura zuzena du testuinguruarekin, euskara-eskola irudiarekin eta kontzientzia faltarekin. Horrekin zerikusia du baita ere euskararen



aldaeren prestigioak eta legitimitateak. Izan ere, “hizkuntza gutxituetako hiztun berriek segurtasun falta, konfiantza falta eta benetako hiztunak ez direlako sentipena izan ohi dute, eta norbere burua euskaldun berri moduan ikusteak izan dezake ondorioz”.

Gazteek euskarari atxikitzen dizkion balioak, kontzientzia eta konpromisoa ere kontuan hartu ditu Aiestaranek: “Euskara ikasteak ez dakar halabeharrez hizkuntzarekiko identifikazioa ezta konpromisoa ere”. Identitatearekin nahasita egon ohi da faktore integratzailea; batzuetan oso erreala da, baina ia denean gaztelaniaz bizi diren askorentzat euskara ez da integratzeko hizkuntza. Horren harira, nerabezaroan identitatearen berregituraketa gertatzen dela azaldu du. Norberaren hainbat alderdi elkarrekin integratzen dira garai horretan, eta erreferentzia-ereduen krisia irekiko da.

Amaitzeko, lan espektatibak eta hizkuntzak lan merkatuan duen balioa oso garrantzitsutzat jo du Aiestaranek. Azaldu duenez, EAEn oso hedatua dago etorkizunean lana egiteko euskara beharrezkoa izatearen ideia (%77) eta Nafarroan ere pisu nahikoa dauka (%46); Ipar Euskal Herrian, bestalde, datu horietatik urrun daude (%22).



Euskaraz eta gaztelaniaz, bietara ikastea hobesten dute ikasleek

Komunikazio eta Gizarte Zientzietako ikasleen matrikulazio joeren analisia egiteko, EHUko sarbide berriko euskarazko matrikulazioak ikertu ditu kazetariak, 2003-2004 eta 2016-2017 ikasturteen arteko epean. Horrez gain, sei elkarrizketa egin ditu EHUko Fakultatean eskaintzen diren komunikazio-arloko hiru graduetako lehen mailako ikasleekin, eta guztiek dute euskara maila altua.

Azaldu duenez, 2003-2004 ikasturteetik hona, etengabe hazi dira sarbide berriko euskarazko matrikulazioak EHU. Hamalau urtean, 13,18 puntu igo dira matrikulazioak, %37,82tik %51ra. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateari dagokionez, Ikus-entzunezko Komunikazioan eman dira gorabehera gehien. 2007-2008 ikasturtean Ikus-en-

Proportzioak ez datoz bat; unibertsitate arteko ikasketak euskaraz egin eta gero askok unibertsitatean gaztelaniazko adarrean aritzea erabakitzen dute, tartean Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean.

tzunezko Komunikazioko ikasleen %55,8k eman zuen izena euskarazko taldeetan. Hurrengo hamarkadan, euskarazko matrikulazioak %40 inguruan ibili ziren, eta 2015-2016 ikasturtean %32 izan zen.

Harreman Publikoak, Publizitatea eta Kazetaritzako graduak ere antzeko eboluzioa izan dutela esan du Aiestaranek. Publizitatea eta Harreman Publikoetan, euskarazko matrikulazioak ez dira inoiz %50era heldu.

Matrikulazio joerak eta egindako inkestak kontuan hartuta, hainbat ondorio azaldu ditu kazetariak. Lehenik eta

behin, aipatu du hainbat ikaslek eskola-hizkuntza gisa ikusten dutela euskara, hezkuntza formaleko tresna: "Titulu bat izatera mugatzen dute euskara gaitasuna, euskara ez da hausnarketarako tresna, ezta eztabaidarako tresna ere". Bere iritziz, ikasleek askatasunarekin lotzen dute unibertsitatea, beraiek erabaki dutena ikasteko aukera dutelako: "Identitate-bilaketaren azken fasean da goen 18 urteko gazte batentzat, ordura arteko ohitura, tradizio edo inposaketekin apurtzeko modu bat izan daiteke erabaki hori". Baina era berean, familia-kideek egindako prozesua erreproduzitzen dute beste askok.

Aiestaranek ikertutakoaren arabera, ikasleek argi dute euskarak garrantzia izan dezakeela lan-munduari begira. Euskal Herrian lan egin nahi dutenek derrigorrezko ikusten dute euskararen ezagutza izatea, gainerako hainbat hizkuntzarekin batera: frantsesa, ingelesa eta abar. Ikasle horientzat euskara "balio erantsi bat" baino ez dela azaldu du kazetariak.

Euskal Herritik kanpo lan egin nahi dutenentzat, aldiz, "ateak ixteko modu bat" da euskaraz ikastea: "Euskarak izan dezakeen baliogarritasuna erabat desgertzen da gure mugetatik kanpo". Izan ere, zenbaitentzat euskara hizkuntza "inposatua" izan da, leku mugatua izan baitu beraien bizitzetan: eskolako gela, eremu arautua eta derrigorrezkoa.

Beste hainbat ustez, ordea, bi hizkuntzatan ikasteko aukera eman behar luke unibertsitateak. Izan ere, inkesta egindako ikasle guztiak bat datoz aitortzean unibertsitateko hizkuntza ereduak trinkoegiak direla, aukeratu behar izateak alboratzea esan nahi duelako ezinbestean. Proposatzen duten eredu eleanitzean, ikasle bakoitzak aukeratuko luke zein hizkuntzatan ikasi nahi duen ikasgai bakoitza. Zentzu horretan, ereduak arteko muga "trinkoa" euskarazko matrikulazioen kalterako izan daitekeela azaldu du Aiestaranek. ■

BABESLEA: **BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**



Eman hegoak euskarari

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
www.bizkaia.eus

MONSANTOREN ESKULIBURUA:

Zientzialarien lana desitxuratu, pozoia saltzen jarraitzeko

Urriaren 25ean glifosato herbizidaren merkaturatze-baimena luzatu edo eteteaz bozkatzekoak dira Europar Batasuneko estatu kideak. Aurtengo abenduaren 31n iraungiko da gaur egun indarrean dagoen baimena, eta Europako Batzordeak beste hamar urterako berritzea proposatu du, 2015ean IARC erakundeak –minbizia aztertzen duen OMERen menpeko organismoa– glifosatoa seguraski kantzerigenoa dela esan arren.



Unai Brea
@unaibrea

IARCen iritzia kontra eginez, hainbat europar agentziak, tartean elikagaien segurtasunaren zaindaria den EFSAk, adierazi dute ez dagoela arrazoirik glifosatoa –munduan gehien saltzen den herbizida– kaltegarria denik esateko. Azken hilabeteetan, ordea, EFSAri berri eta Europar substantzia kimikoen segurtasunaz arduratzen den ECHAri leporatu izan zaie hainbat ikerlan kontuan hartu ez izana beren ebazpena egiterakoan.

Monsantok aspalditik zekien

Salaketa horien azken pasarte joan den urriaren 4an gertatu zen. Egun hartan, AEBetan Monsantoen aurkako auzia abiarazi duten zenbait pertsona –denak minbiziak jota– Bruselan izan ziren, euren abokatu eta guzti, europar agintariei eskatzeko aintzat har dezatela glifosatoaren arriskuaz berriki zabaldu den ebidentzia.

Monsantoren aurkako auzibidearen karietara multinazionalaren barne agiri ugari –*Monsantoren paperak* izena eman zaie– desklasifikatzeko agindu du epaitegi estatubatuar batek. Horietan argi ikusten da enpresak aspalditik zuela bere produktu nagusietako ba-

ten toxikotasunaren berri. Konpainiak 1999an eskatutako ikerlan baten ondorio modura, James Parry toxikologoak Monsanto ohartarazi zion glifosatoak zeluletan mutazioak eragiteko gaitasuna zuela, eta ondo azertu beharko litza-tekeela haren formulazio komertzialak, enpresak *Roundup* markapean saltzen duenak, zer eragin eduki dezakeen.

Parryren ikerlana ez zen sekula argitaratu, eta haren gomendioak ez ziren aintzat hartu. Baina transnazionalak bazekien glifosatoa arriskutsua izan zitekeela, *Monsantoren paperen* artean dagoen agiri batek argi uzten duenez. Donna Farmer, konpainiako toxikologo batek, honakoa idatzi zuen 2002an: “Ezin dugu esan *Roundup*-ak minbizia eragiten ez duenik. Ez dugu haren kartzinogenitate azterketarik egin”.

Zientzialarien ospea auzitan jartzen

Monsantok bere ikerlanen emaitzak estali zituen isil-isilik, baina aldez, zalaparta handia eragin zuen IARCEk 2015ean esan zuenean glifosatoa seguraski minbizi-eragilea dela gizakiengan. Agentzia horretako hainbat arduradunen esanetan, glifosatoari buruzko ebazpenak atea ireki zion beren aurka sekula ikusi gabeko erasoaldiari.

2016ko apirilean, Reuters agentziak argitaratutako artikulu batek zalantzan jarri zituen IARCEk substantzia minbizi-eragileen sailkapena egiteko darabil-

tzan irizpideak, eta beren-beregi kritikatzen zuen zerrrenda horretan glifosatoa jarri izana.

Artikuluaren edukiak zabalpen handia izan zuen mundu osoko hedabideetan. Luze gabe jakin zen –baina ez horrenbeste zabaldu– haren egilea, Kate Kelland, Monsanto hautatutako eta emandako materialean oinarritu zela. Bestalde, Kellandek “zientzialari independente” modura aurkeztutako Bob Tarone Monsantoen ordainpeko aholkularia da. Carey Gilliam Reuterseko kazetari ohiak azaldu zuenez, Kellandek berak lagundu egin zuen Science Media Centre taldea sortzen; haren helburua da zientzialari eta kazetari jakin batzuk harremanean jartzea, eta agrokimikoen arloko konpainietatik eskuratzen du finantzazioaren zati handi bat, Monsanto barne.

“Junk science”

Reutersen artikulu kanpaina handi baten adibide bakana baino ez da, *Le Monde* egunkarian Stéphane Horel eta Stéphane Foucart kazetariak argitaratutako ikerketa-lan baten arabera. Lehenik eta behin, Monsanto adierazi zuen IARCen erabakia zientzia txarraren ondorioa izan zela. Zehazki, ingelesezko *junk science* esamoldea erabili zuten.

Beren interesen kontra doazen ikerlanak zientzia txartzat jotzea konpainia handien eskuliburuan ageri den lehen

» Desklasifikatutako Monsantoen dokumentuetan ikus daiteke konpainiak aspalditik zuela glifosatoaren toxikotasunaren berri

» IARCek inoiz ez bezalako erasoaldia jasan du 2015ean glifosatoa seguraski minbizi-eragilea dela ebatzi eta gero



Europar abiarazitako Herri Ekimen Legegileak 1.300.000 sinadura baino gehiago helarazi dizkio Europako Batzordeari, glifosatoa debekatzeko eskatuz. Batzordeak, haatik, haren merkaturatze-baimena hamar urtez luzatzeko proposatu du.

urratsa da aspalditik; taktika horren bidez lortu zuen tabakoaren industriak, hainbat hamarkadaz, saltzen dituen produktuen eta minbiziaren arteko lotura ezkutatzea, edo behintzat zalantza piztea, eta geroztik sistematikoki erabilitako metodoa izan da. Monsanto da adibiderik argienetakoa, hain zuzen.

Missouriko multinazionalak hedabideetan mezu hori zabaltu bitartean, bere abokatuek gutunak bidali zizkieten IARCerako glifosatoari buruz azterlanak egindako zientzialariei, beren dokumentuak bidaltzeko eskatuz. AEBetakoak, horrez gain, epaitegietara eraman zituzten. Aldi berean, hazien eta pestiziden alorreko lobbyek IARCen erabakiaz kezak bidali zituzten erakundea finantzatzen duten organismoetara.

Armada txiki bat Monsantoen egia zabaltzen

Monsantoko exekutiboek eurek azaldu dute badutela *Let nothing go* izeneko lan-ildo bat, funtsean konpainiak jasotzen dituen kritika guzti-guztiei erantzutean datzana. Horren arabera, Monsanto, beste enpresa batzuen bitartez, itxuraz industriarekin loturarik ez duten pertsonak kontratatzen ditu, hedabide eta sare sozialetan multinazionalaren produktuak eta jarduerak defendatzeko, eta haren aurkarietara erasotzeko.

Ez daude lan horretan bakarrik. Sigla zopa baten atzean aurkitu daiteke pes-

tiziden, hazien eta sintetiko kimikoen alorretako industriaren interesak defendatzen dituzten talde ugari; IARCen eta harekin lankidetzan dabilzan beste erakundeen aurkikuntzak kritikatzeko erabiltzen dituzte etengabe, ikerketen emaitzak zalantzan jarri.

EFSaren independentzia ezbaian

Monsantoren paperen artean badira konpainiaren eta AEBetako Ingurumen Agentziaren (EPA) arteko lotura estuak erakusten dituzten zenbait mezu. Urriaren 4an Bruselara joan ziren Monsantoen aurkarietara abokatuek iradoki egin zuten Europar gauza bera gerta litekeela. Gaur-gaurkoz horren frogaz zehatzik ez badago ere, irailean *The Guardian*-ek argitaratutako artikulu batek erakutsi zuen glifosatoa segurutzat jotzen duen EFSaren txostenaren zenbait pasarte Monsanto idatzitako berdinak direla, hitzez hitz.

Bestela ere, EFSaren independentzia auzitan jarri da behin baino gehiagotan. Lobbyen jarduna behatzen duen CEO gobernuz kanpoko erakundeak ekainean argitaratua du txosten bat, esanez EFSarako lanean dabilzan zientzialarien erdia inguruk elikagaien industriarekin loturaren bat duela. ■

THE
GARAGART
OF
BREWING!

f GARAGART
t GARAGART
i GARAGART_BREWERY

T: 665 751 834
INFO@GARAGART.COM
GASTEIZ

David Bassa, TV3ko albistegien burua

"KATALUNIAKO HEDABIDE PUBLIKOAK INTERBENITZEA JUSTIFIKATUKO LUKEEN KONTAKIZUNA SORTZEN ARI DIRA"

Kataluniako TV3 kate publikoko albistegien zuzendaria da David Bassa i Cabanas (1971, Granollers). 2011 eta 2016 bitartean Grup Barnils kazetarien elkarteko presidente izan zen. Espainiako Estatuaren itzal iluna beren gainean sentitzeak sortzen duen urduritasuna aitortuta ere, bere lana ongi egiten ari denaren ziurtasunarekin mintzatu zaigu. Datuak bere alde dauzka, eta ideiak ere, oso argi.



Lander Arbelaiz

@larbelaiz

ARGAZKIA: CCMA

Zer moduz zaudete TV3ko kideok? Garai zirraragarriak kazetaritza egiteko, ezta?

Bai, inoiz ezagutu ditugun zirraragarrienak. Sentsazio anibalantea da. Gogoberotuta gaude, zortea delako telebista publiko nazionaletik horrelako dimentsioa duen prozesuaren egunerokoa lehen lerroan jorratzea. Jendea harro dago profesionalki une hau bizi ahal izateagatik. Aldi berean oso nekatuta gabilta, erritmo handia baitaramagu albistegi berezi eta jarraipen izugarri luzeak egiten. TV3ko albistegiek inoiz baino pisu handiagoa dute programazioan, etengabe saio bereziak egiten ari gara, Parlamentuko plenoak eta manifestazioak jorratzen... ez gara gelditzen. Eta erredezioa betikoa da.

Zenbat zarete albistegietan?

300 lagun albistegi guztiak kontatuta. Ondorengo saioak egiten ditugu: albistegiak eguerdi eta gauean, goizeroko saioa, 24 orduko informazio katea, etengabe eguneratzen dugun webgunea, programa informatiboak, adibidez, *30 minuts* erreportajeak, dokumentalak, ekonomia alorrekoak eta gazteen *InfoK* albistegiak. Azkenean, jende asko gara, baina albistegietatik harago irekitzen diren leihoak egiten ditugu.

Espainiako hedabideen jo-puntuan zaudete.

TV3ren aurka dagoen kanpaina tristezia eta etsipen handiarekin bizi dugu. Erabat asmo txarrez egindakoa da, Espainiako Estatuaren partetik Kataluniako hedabide publikoak interbenitzea justifikatuko lukeen kontakizuna sortzen ari direla ziur gaude. Espainiako nazionalismoaren eta zentralismoaren diana izan da betidanik katalanez funtzionatu eta Kataluniako begirada duen kate publikoa. Beti salatu izan gaituzte inolako oinarririk gabe, baina egungoa eskandalagarria da. Intoxikazio hau, Espainiako kazetaritzaren parte handi baten dimisio etiko etsigarria da.

Eta zer duzue esateko horren aurrean?

Espainiako abaniko mediatikoan TV3ko albistegi zerbitzuak dira pluralenak objektiboki. Informatibo guztietan, tertulietan, sentsibilitate guztiak daude, Espainiako kate pribatu eta publikoetan gertatzen ez dena. Gure pluraltasuna ukaezina da eta irizpidea beti da informatiboa. Batzuek salatzen dute TV3k hainbat manifestazio zuzenean ematen dituela, adibidez, Cuixart eta Sànchezaren atxilotetak salatzeke egindakoa. Dena kritikatzeko digute, baina guk dena jorratzen dugu. Espainiaren batasunaren aldekoa ere eman genuen, eta gainera, guk zuzenean kobertura handiagoa eman genion TVEk baino. TV3 edo 324

katea ikusten ari zen publiko katalanak manifestazioaren berri izan zuen, kaleko elkarriketekin eta beste landuta informazioa. Hala ere, Espainiako iruditerian sartu dute independentismoaz informatzea partziala izatea dela.

Zer esan nahi duzu?

Anekdotak argigarri bat kontatuko dizut. Orain bi urte Ana Pastorrek Artur Mas elkarriketatu zuen, garai hartan Generalitateko presidentea zela. Kataluniako independentziak eduki zitzaizkeen alde txarrak zein ziren galdetu zion eta Masek zerrenda bat egin zion. Behin amaitutakoan, elkarriketatzailea gaiz aldatzera zihoanean, Masek esan zion: "Utzidazu orain independentziaren alde onak aipatzen". Eta besteak erantzun zion ezetz, "hori propaganda egitea litzateke". Hori da instalatu nahi duten iruditeria: independentziaren alde txarrez hitz egitea inpartziala dela. Alde onak eta txarrak esan behar dituzu, ordea, beti. Txanponaren bi aldeak, zuri gustatu ala ez, gauzak ongi doazkizun ala ez. TV3 ez da inoiz izan independentziaren aldeko katea, hori bai, TV3k informatu egiten du gehiengo sozial batek antolatzen dituen manifestazioez, eta hauek geroz eta handiagoak badira, noski informatuko dugula. Hori da dagoena, beraiei gustatu ala ez. Espainiako hedabideak errealtatearen perbertsio handia inposatu nahian ari dira.



Emango dizkiguzu datu batzuk?

TV3k zazpi urte daramatza Katalunia-ko kate ikusiena izaten. Albistegien esparruan 1994tik gara lider, eta orain 15 urtetik, bikoiztu egiten diogu ikusle kopurua hurrengo den Tele5eri. Gure batz besteko *sharea* %25 bueltan ibiltzen da, eta Tele5ena %12an. Gauza garrantzitsuak gertatzen direnean, erreferenduma edo greba orokorra adibidez, oso datu altuak lortzen ditugu. Puigdemontek independentzia aldarrikatu eta bertan behera utzi zuen egunean %52,3ko *sharera* heldu ginen, alegia, telebista ikusten ari ziren kataluniarren erdia baino gehiago TV3 ikusten ari zen. Agerian uzten du gauza garrantzitsuak gertatzean jendeak Kataluniako telebista bilatzen duela.

Ardura handia da hori.

Erredakzio Kontseiluak oso biziak eta eztabaida handikoak dira. Ematen ditugun edukien inguruan etengabeko kezka dago, zorrozatasuna mantendu eta denei ahotza emateko. Ez dute sekula esango, baina urriaren 1ean bozkatu ez zuen jendea edo Pineda herritik joan behar izan zuten polizien familiak elkarriketatu genituen, bi adibide jartzearen. Alde guztiei ahotza ematen saiatzen gara eten-gabe, eta lana ongi egiten ari garenaren sentsazioa daukagu, nahiz eta badakigun ez diotela gure aurka tiro egiteari utziko, gezurrean oinarritzen baitira.

Zein giro dago erredakzioan?

Nahiz eta intoxikazioa etengabekoa izan, erredakzioan giro lasaia daukagu. Egiten ari garenarekin batuta, pozik eta gogobeteta gaude. Ez dago zentsurarik ez dirigismorik, eta kategorikoa naiz hau esatean. TV3ko albistegietan, kazetariak erredaktatu eta emititzen dute beraiek landu eta kontrastatutako informazioa. Erredakzio Kontseilueta eztabaidak oso biziak eta profesionalak dira. Hau, adibidez, ez da gertatzen TVEn, Kataluniako delegazioan izugarritzko tentsioa dago. Komunikatuak idazteaz gain, publikoki protestak egin dituzte zentsura eta dirigismoa salatuz. Giroa erabat bestelakoa da, baina hala ere, egurra guri ematen digute. Asmo txarrez sortutako polemika faltsua agerian uzten duen paradoxa da.

InfoK saioaren filosofia azalduko diguzu mesedez?

Haurren katean arratsaldero 20 minutuz egiten dugun albistegia da, 10 urte arteko haurrei zuzendua. 16 urte daramatza antenan eta sari asko irabazi ditu, tartean UNICEFena. Alor honetan Europako hiru erreferenteetako bat da. Gertatzen ari dena haurrei azaltzea da filosofia eta beraiek ulertzea. Hau da albistegietan zailena, eta erredakzio osoa lan honetaz oso harro dago. Ea nola azaltzen diozun haur bati, berak ulertzeko moduan, Katalunian gertatzen ari

dena, edo BPGa zer den, krisi ekonomikoa, abuztuko atentatua, sexu eraso- en albisteak, *bullyinga*... Ariketa hau egiteko ahalegin periodistiko handia egin behar da, bideoak egiteko informazioa eta lengoia asko murtzikatu behar dira. Audientzia du eta aurkezleak eskolaz eskola ibiltzen dira hitzaldiak ematen. Gainera, eskolek askotan erabiltzen dituzte bideo hauek, batzuek ia egunero, gai zailak azaldu behar dituztenean.

Zer espero duzue Espainiako Estatuak egitea? Posible ikusten duzue Polizia *manu militari* erredakzioan sartzea?

Orain une arraro batean gaude, zer gertatuko zain. Baina bai, irailaren 20an Generalitateko karguak atxilotu zituztenetik aurrera, erredakzioak intentsitate handiz barneratu zuen Guardia Zibila TV3ren egoitzan sartzeko aukera, telebista publiko gisa, estatu egitura bat garelako. Sinbolikoa da. Gure aurkako kanpaina orkestratu bat ikusten dugu, eta agerikoa da jo-puntu bat garela. Larritasunez bizi izan dugu egoera, baina ezin dugu beti presio horrekin lan egin. Badakigu estatuak nahi duena egingo duela, baina guk ez diogu aitzakia objektiborik emango. Gure lana ongi egiten jarraitu behar dugu.

Aitzakia badute, eurek debekatu zuten eta zuek emititu zenuten urriaren 1eko erreferendumaren publikizitatea.

Bai, publikizitate instituzional hori emitituz bagenekien Espainiako Konstituzio Epaitegiaren kautelazko suspentsioa desobeditzen ari ginela, baina pentsatzen genuen gehienez ere, Guardia Zibila etorriko zela esanez "publizitatea kendu ala zuzendaritza atxilotuko dugu" gisako zerbait. Ez zen hori gertatu ordea. Guk emititzen genuen, telebista publiko eta nazionala garelako, Parlamentuak sortu gintuen. Badakigu, eta informatiboki garbi utzi dugu, Espainiako hedabideek "erreferendum ilegala" deitu arren, ez zela hala, kautelaz suspenditutako erreferenduma baizik. Ez zen ilegala, ez dagoelako legerik esanez ilegala dela erreferenduma egitea. Lengoiaren perbertsio handia zegoen hor beraz. Parlamentuaren menpe gaudenez, publikizitatea emititzean, Parlamentuko legeen arabera jokatu genuen nahiz eta bagenekien Espainiako lege batzuk aurka zihoazela. Arrisku hori genuen, situazioa delako dena, eta ez dago tarte handirik.

“TV3 ETA CATALUNYA RÀDIOREN BILA JOANGO DIRA”

“Kataluniako garai erabakior hauetan, hainbat medio erabakitze eskubidearen aurka ari direla argi ikusten da, eta beraz, mugimenduak gertatzen ari dira: jendea hedabidez aldatzen ari da, *El País* gisako hainbat mediotan zutabegileak zentsuratzaren edo joaten ari dira, medio berriak sortzen ari dira... Kataluniako gizartea berokotzen ari da, eta hedabideak horren isla dira”. *La Directa*ko kazetari David Bou eta Jesús Rodríguezekin bildu gara, hedabideen prisma abiatuta, egoera aztertzeke.

Hedabide publiko eta pribatuak bereizten dituzte analisirako. Pribatuaren alorrean, prozesuaren beroan hainbat medio digital sortu edo aurretik existitzen zirenak indartu dira. Hor aipatzen dituzte *El Mon*, *Nació Digital* eta *Vilaweb* adibidez. “Hedabide hauek diru-laguntza publikoak jasotzen dituzte, eta albisteak sortu eta sortu ari dira, asko biralak, proiektio handia eman ez soberanismoaren kontakizunari”, dio Bouk. Hedabide hauek harpidedunak irabazten ari dira beren hitzetan.

Txanponaren beste aldean, papereko egunkariak. Rodríguezen hitzetan, azken sei urteetan Bartzelonako kioskoen erdia inguru itxi dute, eta egun, paperak ez du hainbesteko eraginik: “Egunkariak medio digital bilakatzen ari dira, eta egunkariaren salmenta ia %70 jaitsi da”. Bere hitzetan “prentsa idatzia hilzoriar dago”, eta *El Periódico* eta *El País* gisako egunkariak ez badituzte itxi, batzuek hori gerta ez dadin dirua jartzen ari direlako da. *La Vanguardia*ri negozio arazo bat ikusten diote: bere irakurlegoa prozesuan sartuta dago, zuzendaritzak berau suntsitu nahi duen bitartean. Hortik hitzak neurtu beharra,

milaka harpidedun galdu nahi ez badi-tuzte.

Herri mugimenduei eta protesta sozialei arreta handiagoa jartzen dien *La Directa*ko kideak pozik daude. Harpidetzetan gora ari dira, eta jende berria proiektura erakartzeko aukera ikusten dute egoera politiko honetan. Erreferendum eguna jorratzeko, aurretik greba orokorretan hasitako bidetik, hemeretzi kolektibo eta herri hedabide indarrak batu zituzten *Agència UO* (Urriak 1 Agentzia) sortzeko. Guztira 150 lagun aritu ziren lanean egun horretan. Zer hobetua ikusten badute ere, halako ekimenen potentziala argi dute: lanera jende berria aktibatu eta bertan trebatzeko aukerak handiak dira. Aurrera begira, beren lekua berregiten ari direla diote, makro-politikak hartu duen dimentsioa ikusita, eta beste hedabide batzuekin albiste kopuruan ezin dutela konpetitu jakitun, beste eztabaida batzuk mahai gainean jartzeko arrakalak irekitzeko egin nahi dute lan. “Orain gizartea oso harbera dago eta zer gertatzen ari den ulertzeko iturri eta ikuspuntu berriak bilatzen ari da. Aukera bikaina da gurea bezalako proiektuentzat, ehunka milaka lagun daude burua zabalik”.

Hedabide publikoak jo-puntuan

TV3 eta Catalunya Ràdiok albistegien esparruan duten nagusitasuna oso esanguratsua iruditzen zaie Rodríguez eta Bouri: “Albistegien kulturak erabakitzen du gertatzen ari denaren eta ez denaren marko mentala. Horregatik joango dira, goiz edo berandu, TV3 eta Catalunya Ràdioren bila”. 155 artikulua aplikatu eta autonomia bertan behera utzita, aginte-kate eta

egitura politiko kontuagatik, Lehendakartza kontseilaria erori ostean, honen azpian TV3 eta Catalunya Ràdioko buruak daudela gogoratzen dute. “Denaren bila joango dira”.

Herritarrek orokorrean TV3 ez dutela arriskuan ikusten uste dute. “Ez naiz inoren gainetik jarriko moralki, baina batzuetan inozentzia puntua dagoela iruditzen zait. Halere, esan behar dut oso harrituta nagoela ikusita mobilizazioak zein puntutara heltzen ari diren, jendea eskolen atarietan egon baitzen eta jipoituta atera asko. Dena den, uste dut ez garela kontziente zer nolako tamaina hartzen ari den guztia. Gure belaunaldia ez gara hain egoera zaillean sekula egon, ez ditugu imaginatu ere egiten gertatuko diren gauzak, gertatzear dago”, dio Bouk.

“Nora doa hau?” galderari erantzun gordin eman dio Rodríguez: “Hemen unionistek ez dituzte hauteskundeak irabaziko. Katalunia indarrez hartu beharko dute. Zazpi urteko prozesuaren nekea neke, azken hilabeteen gertatu den guztiarekin harri bat bezain gogor dago bi milioi pertsonatik gorak osatzen duten blokea, eta 155. artikulua aplikatuta, gehiago. Alderdi independentista guztiak ezin dituzte ilegalizatu, hori egiteko, estatu kolpe bat fundamentuz ematen duzu. Halere, errepresio maila traumatikoak aplikatzeko gai dira”, dio kazetari zailduak. Bere ustez, hildakoak badaude baliteke klase ertainek borroka utzi nahi izatea, baina kontrakoa ere gerta daitekeela dio. “Nik ez dut garbi ikusten nola kontrolatuko duten lurraldea. Agian Bartzelona kontrolatzera hel daitezke indar guztia horretara jarrita, baina Katalunia osoa?”.

Herri mugimenduetatik askoz ere gertuago dauden eta beste kazetaritza mota bat egiten duten kazetari batzuekin ari nintzela, TV3ri buruz oso ongi hitz egin zidaten, “Europako katerik profesionale-netako bat da” esatera iritsiz. Hori ez da ia inon gertatzen. Zein dira gakoak?

Paradoxa da, ez delako konplikatu. Tristeena da hau salbuespena izatea. Beti irizpide profesionala lehenestea da erantzuna. Gertatzen dena da, telebista publiko askotan ez direla lehenesten irizpide profesionalak, baizik eta ideolo-

gikoak, alderdikoiak edo ekonomikoak. Heroismoa iruditzen zaigu, TV3n bezala, beste gauza guztien gainetik independentzia profesionala eta kazetaritza irizpidea jartzea. Ez bakarrik zuzendaritzatik hori hala egitea erabaki delako, erredakzioaren egituragatik ere. Kontrapisu asko ditu. Enpresa batzordeaz gain, komite profesionala dago, sekzio guztietako kazetariak osatua eta edukia zaintzea helburua duena. Edozein duda hor hitz egiten da. Debatea eta autokritika etengabea da. Barne-kontrol autono-

moak daude eta kazetariak bozkatzaren dute ea hemen zein kazetariak hartu behar duten parte. Edozeren gainetik kazetaritza irizpidea lehenetsi dadin borondatea esplizitua da. Beste hedabide askotako kideek ulertzen dute, albistegietako zuzendaritza aldatzean, programen zuzendariak afinitate horren arabera aldatzen dituztela. Nik urte eta erdi daramat karguan eta egin ditudan aldaketa guztiak beti irizpide operati-boengatik egin ditut. Ez dago kasu bakar bat ere, aldaketa afinitateagatik egin

izanagatik salatua edo susmagarria. Ez delako halakorik izan. Jendea aginte postuetan jartzean, irizpide periodistiko eta ibilbideagatik egin behar da, ez afinitate politikoagatik. Eta hori ongi egiteak bere fruituak ditu.

Imajinatzen duzu TV3 gaztelaniaz?

Inola ere ez. TV3ren fundazio-arrazoia telebista katalanez egitea da. Kataluniak telebista duin bat bere hizkuntzan izatea da gure existitzeko arrazoia. "Katalunian bi hizkuntza daude, eta erdia eta erdia egin", diote PP eta Ciudadanosetik. Hasteko ez daude bi hizkuntza Katalunian, 300 baizik, baina nahiz eta gaztelania katalanaren paretsu egon batz bestea, ez du zentzurik erdia eta erdia egiteak. Gure herrialdea islatu behar dugu eta hala egiten dugu. Gaztelaniaz hitz egiten dutenak ateratzen dira elkarriketetan eta abar, azpitu-luak askotan erabiltzen ditugu, baina aurkezle eta programa guztiak katalan hutsean dira, katalan hizkuntzak soilik TV3 duelako. Telebista kate gisa batz bestea %11,5eko *share*an gabilta. Horrek esan nahi du beste %88,5 gaztela-



» "Betidanik Espainiako nazionalismoaren diana izan da katalanez funtzionatzen duen telebista"

niazko telebista kateek osatzen dutela. Beraz, Katalunian telebista ikusten duten herritarrek badaukate gaztelaniazko eskaintza. Polemika horrek ez du zentzurik.

Zein erronka dituzue aurrera begira?

Intoxikazio kanpaina salbatzea da erronka nagusia. Ez diogu utziko gure lana ongi egiteari eta Espainiako hedabideen presio mediatikotik isolatzen saiatzen ari gara. Gure irizpide eta estiloari eutsi... eta ez al da Espainiako Estatuaren interbentzioa gertatuko! Desastrea litzateke, bai guretzat, bai herrialdearentzat, baita orokorrean ere, Espainiako gizarteentzat. Oso larria litzateke eskubide zibilen ikuspegitik. Bada jende bat justifikatu egingo lukeena Espainiako hedabideek sortu duten kontakizun faltsu horren erruz, Kataluniari buruzko gezurrengatik. Kataluniako protesta baketsuak bilakatzen dituzte istilu ["*altercado*"] edo iskanbila ["*tumulto*"]. Espainiako gizarteak interbentzionismoa eta estatuaren eraso erots ditzan kontakizuna osatzen ari dira, eta hori oso arriskutsua da. ■

MOYUA
HILETA ZERBITZUAK
Zure momentu zailetarako

Tel.: 943783447 - 617442466
mmoyua@telefonica.net
Otradui Gotzaina kalea, 27 - Oñati

Estatuaren biktimak **ARGAZKIEN BIDEZ MEMORIARA**



Xabier Letona

@xletona

ARGAZKIAK: JOSEBA ZABALZA



*Josefina Liceranzu Larrazabal eta Manuel Cabacas Sánchez,
María Díaz Harokoa kaleko etxartean, Kurruli tabernaren ondoan;
Iñigo Cabacas Liceranzu 'Pitu' seme bakarra hil zien Ertzaintzak han, gomazko pilotakada batez.*

Espainiako Estatuak azken hamarkadetan eragindako 105 biktimaren argazkiz osatutako liburua argitaratu du Joseba Zabalza argazkilariak Euskal Memoria Fundazioarekin. 40.000 kilometro egin ditu zeregin horretan, hildakoen familien sukalderraino sartu eta iraganetik orainera ekarri du haien sufrimendua. Familien mina erakutsi nahi izan dute.

Liburuaren zergatiak galdetzen diogunean berau egitea bururatu zitzaion unea datorkio burura Joseba Zabalzari: “Autoan nindoan eta entzun nuen irratan hemengo gatazkaren biktimak ETak eragindakoak bakarrik zirela. Amorratu egin nintzen. Zer ote ziren, bada, nire euskara irakasle ‘Basajaun’, Katu tabernako Mikel Castillo, Mikel Zabalza –hau oraindik terrorista gisa ageri da agirietan–, Lasa eta Zabala eta beste hainbat? Euskal Memoriari proiektua proposatu nion, hauek onartu eta ekin egin genion”. Biktima hauen memoria gizarteratu eta berreskuratzeko lanean ale bat gehiago jarri du Zabalzak.

Zuri-beltzez egindako argazkietan oinarritzen da liburua. “Serioagoak eta erakargarriagoak iruditzen zaizkit halako kasuetarako, bakardadea islatzeko adibidez”. Biktimaren senidea hartu, biktima hil edo zauritu zuten tokira eraman eta han argazkiak egin. Kasu bakoitzari dagokion idatzizko azalpena ere bada, testuinguruan kokatu ahal izateko. Leku horiek bereziak dira senideentzat, sakratuak bihurtzen dira, eta beti ez dira bertaratzeko gai izaten: “Senide bat, esaterako, ez da inoiz pasatu bere anaia hil zuten tokitik, ezin du, eta sekulako itzulia ematen du hara ez gerturatzeko. Beste batzuetan terapeu-



Mari Jose Bravo del Valle: Goian ezkerrean bere anaia Alberto, Donostian, Zorroaga gaineko Miserikordia bidean. Han faxista talde batek arreba bortxatu eta hil zuen. **Marcelo Gartzandia:** Goian eskuinean Mari Cruz arreba Lasarte-Orian, N-1 errepiderako sarbidean, Donostiarako noranzkoan, guardia zibil batek zauri hilgarriak eragin zizkion lekuan. **Manuel Fuentes:** Behean ezkerrean Manoli Fuentes alaba, 1977an Amnistiaren Aldeko Astean poliziak aita hil zion lekuan, Ortuellan; tiro bat jaso zuen tokian. **Jose Miguel Beñaran, ‘Argala’:** Behean eskuinean Pablo anaia, Angelun, BVEk jarritako lehergailuak bere autoa lehertu zuen tokian.



tikoa izan da eta esaten dute 'han egon ondoren hobeto sentitzen naiz' edo 'ez nekien gai izango ote nintzen'".

Ohikoan senide bat edo bi agertzen dira argazkietan. Batzuetan ez dago biktimaren toki zehatzik, eta oroigarriren batekin agertzen dira, Jose Miguel Etxeberria 'Naparra'ren ama, Celes, eta Eneko anaiaren kasuan bezala: "Auto batean ikusi zuten azkenekoz eta Frantziako polizia aukera eman zion familiari oroimenen bat eramateko autotik. Aitak bolantea eskatu zuen eta harekin ateratzen dira Celes eta Eneko".

Hala ere, biktimak bizirik zireneko argazkiak ere badira hildakoen kasuan, familiak edo lagunek utzitakoak: "Germán Rodríguez, adibidez, zer da guretzat? Profilez ezagutzen dugun bizardun bat edo kopetan tiroa duen gaztea. Bada, liburuan ateratzen den Germán bizar gabe Etxaurin eskalatzen ari den gaztearena da".

Ez da gorrotorik, egia nahi dute

Saminaren bihotzera sartzea ez da samurra: "Batzuetan familiekin hitz egitea gogorra izan da, hasieran isiltasuna da nagusi hainbatetan, baina proiektuaz hitz egin ahala berotuz joan ohi da giroa. Mina badute, baina denborarekin mina ez da berdina. Baztertu dute gorrotoa eta hori oso garrantzitsua da bizirik jarraitzeko, gorrotoarekin ezin da bizi eta. Barkamena ez da garrantzitsuena



» JOSEBA ZABALZA:

"Senideek mina badute, baina denborarekin mina ez da berdina. Baztertu dute gorrotoa eta hori oso garrantzitsua da bizirik jarraitzeko, gorrotoarekin ezin da bizi eta"

hautentzat, egia baizik, zer gertatu zen eta zergatik".

Kasu ezezagunak ere jorratzen dira liburuan, Pedro Jesus Etxandi Iturrirena esaterako, 1975ekoa. Luzaidekoa (Nafarroa) zen eta handik Auritzera zihoala tirokatu zuen Guardia Zibilak. Ospitalean berak esan zuen ez zegoela inongo


kontrolrik. Handik egun batzuetara hil zen. "Guardia Zibilak ohar txiki batean jakinarazi zuen kontrolean geratzeari muzin egin ziola. Isiltasuna nagusi izan da harrezkero".

Koldo Arriola 18 urteko ondarroar gaztearena ere ezezagun horietakoa da. "Urte bukaerako afaria zuen lagunekin eta afalostean Ondarroako erdigunean zegoen Guardia Zibilaren kuartelaren aurretik pasatu ziren. Guardia zibil batek esan zion sartzeko, sartu zen eta berehala tiro bat entzun zen, gaztea korrika

kanpora atera zen eta bertan erori hilik. Zaborraren kamioian eraman zuten hilerria eta ondoren familiak lortu zuen etxera eramatea".


Aitak frankisten aldean jardun ei zuen 36ko Gerran eta guardia zibilen laguna ei zen, baina Zabalzaren esanetan, oraindik inork ez daki zergatik hil zuten. "Akats bat izan omen zen. Hidalgo kapitain ospetsua zegoen kuarteleko buru eta esaten da zera esan zuela: 'bagoaz gaiztoen atzetik eta ez ditugu harrapatzen, eta gero hau gertatu behar'. Epai-keta egin zen, baina ez zen zigorririk izan, liburuko gainerako kasu gehientsuengatik legez.

105 biktima 457 orrialdetan, tartean ETako militante batzuk ere bai: "Ez naiz sartzen haiek epaitzera, batzuk eskuan arma zutela hil ziren eta beste batzuk handik pasatzen ziren, besterik ez. Niretzat guztiak dira historiaren bazterrean utzi nahi dituzten biktimak". ■


Zarautz
Hileta Zerbitzuak

Araba kalea, 35 · Zarautz (Gipuzkoa)
☎ 943 894 937 / Faxe: 943 894 941 · harrespil@harrespil.net


Harrespil
Hilerri eta Hileta Zerbitzuak


Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Amilaga, 39 · Bergara (Gipuzkoa)
☎ 943 761 299 / Faxe: 943 761 299

Hilerrien gestioa · Hileta zerbitzu orokorrak · Zerbitzu iraunkorrak · Koroak · Eskelak



NESKATOA, NE TU SO GAUSA MOISSA?



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazustabarrena

Kolonia (egungo Alemania), 1496ko azaroaren 7a. Arnold Von Harff noble renaniarra, 1471n Bedburgeko Harff gazteluan jaioa, erromesaldian abiatu zen. Erroman, Jerusalem, Santiagon eta beste hainbat tokitan egon ondoren, hiru urteren buruan, 1499ko azaroan itzuli zen etxera. Bidaia luzean ikusi eta entzundakoak idatziz jaso zituen, eta 1860an E. von Groote-k argitaratu. Euskal Herritik bitan igaro zen. Santiagora bidean Izuratik sartu zen, eta Iruñea, Gares eta Vianatik pasa ondoren, Ebro zeharkatu zuen. Bueltan, Gasteiztik Tolosara joan zen, San Adrianen barrena, eta Irundik ere igaro zen.

Von Harffek berak adierazi zuenez, “erromesaldi onuragarria egitea erabaki nuen, nire arimaren kontsolagarri eta salbagarri [...] baina baita hiriak, herrialdeak eta herrien ohiturak ezagutzeko ere”. Zenbaitek Behe Erdi Aroaren eta Aro Modernoaren arteko haustura espiritualaren isla ikusten du erromes-bidaiairenen jarreran.

Bidaiairenen alderdi ludiko eta praktikoa hori nabarmentzen da, besteak beste, euskara, bretoiara, esloveniera, turkiera, hebreera, arabiera, albaniera, hungariera, siriakoa, amharera eta armenierazko hiztegitxoetan. Egungo bidaia-gidetan bezala, oinarritzko hitz eta esaldi praktikoak ordainak eman zituen hizkuntza



Arnold Von Harff (1471-1505) renaniar erromesaren bidaia-liburuko bi orrialde. Ezkerrean Egiptoko krokodilo bat dago irudikatuta. Eskuinean, aldiz, Nanteseko jantzi tipikoak daude jasota eta, irudiaren azpian, bretoiierazko hiztegitxoa.



horietan. Zenbakiak euskaraz *bat, bij, yron, lae, boss, see, sespe, tzortzey, we-deatzey* eta *hammer* ziren. Ogia, ura eta ardoa nahi izanez gero *ogea, oyra* eta *arduwa* eskatu behar ziren, eta prezioa jakiteko, *schatbat* galdetu.

Erromesaren asmo ez hain zerutiarren froga nagusia hiztegitxo guztietan –armenierakoan izan ezik– sartu zuen esaldia da: “Neska ederra, etorri nirekin ohera”. Euskarazko ordaina, hauxe: *schatuwa ne tu so gausa moissa*. Adituak bat datoz lehen hitzen esanahian; *scha-*

tuwa ne tu so hori “neskatoa, nahi duzu” litzateke. Julio Urkixo eta Justo Garatek uste zuten *gausa moissa* “gauza motza” zela, “alua” esan nahi zuela eta aditza (kasu honeetan, adibidez, “erabili”) elipsian legokeela. Koldo Mitxelenaaren ustez, aldiz, *gausak* “gautzan” edo “goazen” esan nahi du, eta ez zeukan garbi *moissa* zer zen: “Ohera”? “Batera”?

Hizkuntzalariak ere bat ez zetozen esaldi horrekin, lortu ote zuen Von Harffek *schatuwaren* batek baiezkota esatea edo proposamena ulertzea behintzat? ■



Makiak sasi artean ezkutatuta

Jatorrian, Korsikako italieraz, *macchia* hitzak “sasiz estalitako zelaia edo basoa” esan nahi du. Ondoren, *maki* hitza ekosistema mediterraneo jakin bat izendatzeko erabiltzen hasi ziren, nagusiki Frantziako hego-ekialdean topa daitekeena eta zuhaixka eta zuhaitz termofilo ugariakoa. Gerra napoleonikoen garaian

derrigorrezko errekrutatze militarra saihesteko eremu horietan ezkutatzen zirenei *maquisards* edo *maqui* esan zieten. Eta aurrerago, Bigarren Mundu Gerran, frantziar erresistentziako kideek, batez ere landa eremuan, izen hori hartu zuten, baita geroago frankismoaren aurka arituko ziren gerrillariak ere. ■

Tomatea gordinik, noiztik?



Jakoba Errekondo
jakoba@bizibaratzea.eus

XVI. mendean odolez ureztatu zituzten Ameriketako lurrak Espainiako erregearen eta jaungoiko baten izenean mundu haiek konkistatzera joandakoek. Gorritz ureztatu eta ordainetan tomateak bildu (*Solanum lycopersicum*).

Tomatea, agidanean, Hego Amerikan sortua da, baina bere benetako etxeko-tzea eta aldaera mordoa lantzea meso-amerikarren lana izan zela diote. Tomate handiak eta ttikiak, horiak beltzak eta gorriak, ale bakanekoak eta multakotakoak, urte askoan lantzearen ondorioz aldaera desberdin ugari zuten. Gaur egun Mexiko hiriburua dena Tenochtitlan zen 1521ean Hernán Cortés-ek konkistatu eta mendean hartu zue-nean. Hango kultura oinarritzkoa zen tomatea. Laster ekarri zuten Europara, ustez Sevillako portuan barrena. Espainolen “inperioan” ziztu bizian zabaldu zen: Europa, Karibea, Filipinak... Gure kontinenteko lehen aipamen idatziak italiarrak dira (Pietro Andrea Mattioli, 1544). European ezagunagoa zen lan-



Mendetan ez da tomatea gordinik jan European.

dare apaingarri modura, jangarri modura baino. Ez zuen aurrez jaten zuten inolako fruituren antzik: berdetan garratza zen eta helduta, bera eta biguna, desegin egiten zen. Itxuraz tomatea laster lotu zuten alberjiniarekin (*Solanum melongena*), baina patata (*Solanum tuberosum*) iritsi berriarekin eta batez ere belai-iki edo belladona (*Atropa belladonna*) pozoitsuarekin zuen antzagatik kosta zitzaion sukalde sukalde hedatzea. Espainiarrek Ameriketara dastatu eta ikasitakoa pixkanaka ezagun bihurtu zen “espainiar erako tomate saltsa” egin izan da European mendetan. Saltsan egiten zenez tomate alearen itxura ez zen garrantzitsua eta arto-babarrun so-

roaren ertzean egiten zen, arbatu gabe, orain kuiak (*Cucurbita pepo*) bezalaxe. Eta mendetan ez da gordinik jan, seguruenera tomatea dastatzeko era onena.

Mendetan, izan ere neronek ezagutu dut tomatea gordinik jan ez zuen jendea. Gure etxean, umetan, tomatea gordinik janarazteko gatz-olioz beharrean azukrez gozatzen zen. Anai-arreba guztiok gatz-olioetara pasata ere, denbora batean gure anaia batek azukrearekin jaten jarraitu zuen. Eta gure aitona Benito zenak 80 urterekin dastatu zuen lehen aldiz tomate gordinak. Gure kultura kostata egin du bidea tomate gordinak, baina egin badu egin du: aspaldiko urteetan gure baratzeetako erregina da. ■

Nafarroako ‘piko de peralta’ piper ekologikoa




ZURE ESKAERA
EGIN!



Piperra 4 eratan eska daiteke:

gordinik; 2.10€/kg
erreta; 2.6€/kg
erreta eta garbia; 3.90€/kg
hutsean poltsaratua; 4.30€/kg
Eskariak 2017/10/27 arte jasoko dira.

Alkartasuna Kooperatibaren:
Atallu industrialdea 26, Usurbil
943 361 114 eta 630 938 027
alkartasuna@usurbil.com
www.alkartasuna.eus



Urdaibaiko jatorrizko basoak berreskuratzeke diru bilketa martxan



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZIAK: LURGAIA FUNDATZIOA

Natur ondarea kontserbatu eta kudeatzeaz arduratzen da Lurgaia Fundazioa, eta bertako basoen berreskurapenerako lanean dihardu 2002an sortu zutenetik. “Gure basoak, gure etorkizuna” proiektua jarri dute abian orain: Urdaibaiko jatorrizko basoak berreskuratzea da helburua. Proiektua bultzatzeko diru bilketa martxan da dagoeneko.

Pinu eta eukaliptoen ordezt bertako baso anitzak

Muxikako Ibarruri auzoko Undabaso eremua da proiektu berriaren kokalekua. Bertako basoen %90 inguru pinu eta eukalipto ustiapenak dira, Mireia Valle Tobar Lurgaiako langileak azaldu bezala: “Hango baserri batera bizitzera joan zen pertsona bat jarri zen gurekin harremanetan: bere lurretan dena pinu eta eukalipto zela ohartu zen, eta bertako zuhaitzak nahi zituen”. Lurgaiakoek inguruko lurak erosteko eta bertako jabeekin akordioak lortzeko lanari ekin zioten.

Urdaibai inguruan harizti oso gutxi gelditzen direla eta gutxi horiek banatuta daudela azaldu digu Valle. Horregatik, bioaniztasunaren alde espezie anitzak landatzea ez ezik, haritzari garrantzia ematea ere bada fundazioaren

helburua: “Hariztiak berreskuratzea oso garrantzitsua da, ez bakarrik gure ondare naturala berreskuratzeke, baizik eta aldaketa klimatikoari aurre egiteke, higadura prozesuak gutxitzeko edota gure ibaien eta erreken uraren kalitatea hobetzeko”, diote proiektuaren ardura-dunek.

Diru bilketa lurak erosteko

Urdaibaiko baso lurren gehiengoa esku pribatuetan egonik, jabeekin akordioak lortzen saiatzen dira fundazioak, eta hori ezinezko denean lurak erosten dituzte. Hain zuzen horretarako abiatu dute diru bilketa kanpaina: lurak erosi ahal izateko. 18.000 euro falta zaizkie lehenengo eremua ordaintzeko. Hitzarmen berriarekin lehendik kudeatzen zituzten 26 hektareei beste 31 gehituko dizkiete, orotara 57 hektareatako lur eremua hartuz. Helburu nagusia, ordea, hurrengo urteetan 100 hektareatako basora iristea litzateke. “Basoa esaten dugunean, gutxienez 100 urte eta 100 hektarea behar dituen ekosistema konplexuaz ari gara. 100 urte itxaron beharraz ez gara arduratzen, ez dugu presarik, naturari laguntzen diogu eta ez ditugu emaitza azkarrak espero. Argi dugu, baina, egun gure basoak zaintzeak gure etorkizunean eragin positiboa izango duela”, diote. Bere aletxoak jarri nahi duenak labur.eus/HP5TQ helbidean egin dezake ekarpena. ■

www.bizibaratzea.eus

JAKOBA ERREKONDOREN HITZALDIAK

Urriak 29: Tolosa

Bedaio auzoko Azoka Berezian, *Landareak Lantzen* aurkezpena.

Azaroak 4: Usurbil

11:00etan Potxoenea Kultur Etxean *Landareak Lantzen* aurkezpena, Jakoba Errekondo eta Antton Olariagaren eskutik.

Azaroak 5: Arrieta

9:00etan plazan *Landareak Lantzen* aurkezpena eta azokan kontsultategia.

Azaroak 11: Ormaiztegi

11:00etan Baratze Parkean ibilaldia eta kontsultategia.

Azaroak 15: Gasteiz

18:00etan Olarizuko parketxean *Altza Porru* komikhitaldia Jakoba Errekondo eta marrazkilariekin.

Azaroak 16: Lezo

Landareak Lantzen aurkezpena eta kontsultategia.

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

"EUSKAL HERRIA: EZKUTUKO ZORRA" DVD-A

4

Euskal ekonomiaren inpaktu sozio-ekologiko globalak agerian

DVD honetan ikusiko dugu nola Euskal Herrian kontsumitu eta ekoizten dugun produktu ugari, Hegoaldeko herrialde txirotuetan duten jatorria, bertan kutsatzea edo langileak baldintza prekarioetan kontratatzea errazagoa eta merkeagoa baita. Somalian arrantzatzea, Bolivian mineralak erauztea edo Indonesiako nekazaritzarako erregaia landatzea merkea izaten da, kutsatzen denagatik ez delako ordaintzen, besteak beste. Iparraldeko herrialde industrializatu, edo aberastuok onura ateratzen dugu hortik; kontsumitzaileok, euskal enpresek eta gobernuek onura ateratzen dute injustizia horretatik.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



EKOLOGISTAK MARTXAN

www.ekologistakmartxan.org

#zorekologikoa
#kapitalismoarenalokaltak
#justiziasozialglobala
#guztiononerakoekonomia

Urriko sariak

1



Kimutx liburuak
4 ale

2



Bilgune Feministaren
ETEN tratu txarrak diskoa
2 KD

3



Mugarik Gaberen Defensoras:
emakumeon eskubideen alde
2 elkarriketa liburuxka

4



Ekologistak Martxanen
Euskal Herria: ezkutuko zorra
4 DVD

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



Eguneroko dosi txikia 2018rako



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Oraindik urrun ikusiko dute askok urte berria. Astea luze egiten ari zaionak oraindik eta urrunago, ziur. Izango da iragan urte zaharra 2018a baino gertuago ikusten duenik ere! "Oraintxe geunden-eta urtarrilean!" esango du bateren batek. Baina hamar hilabete azkar pasa badira, pentsa bi zein abiaduratan igaroko zaizkigun. Nik saltoki handiren bateko erakusleihoen bat ikusi dut dagoneko Gabonetako apaindurekin. Pentsa!

2018a gainean dugu, eta ARGIAk urte berrirako prestatu nahi zaitu, urtero bezala. Aurten ez dugu urtekaririk izango urtarrilean, baina ARGIA aspalditik ezagutzen dutenei segur naiz jada bururatuko zitzaiela zertaz ari garen. Noski, klasiko bat: ARGIAren egutegia. Zein Argiazalek ez du oroitzen Durangoko Azokako ARGIAren mahaia egutegiz josita? Aurten ere ez dugu hutsik egin, eta dagoeneko salgai dago ARGIAren webguneko dendan.

Egutegia ezagutzen duzuenoi alferrik azalduko dizuet berezitasuna, zenbaki bakoitzaren atzealdean jarri ohi dugun

asmakizun, kontakizun, aipu edo bitxikeriaren kontua. Baina agian interesatuko zaizue aurten orrialde bakoitzean zein gai aurkitu ahal izango dituzun jakitea. 2018ko takoa egiteko, aurten kazetari eta kolaboratzaile bat baino gehiago aritu gara lanean. Zergatik? Bakoitzak bere gustuko atala landuz edukiari aniztasuna eman nahi izan zaiolako. Gainera, Argiazale batek baino gehiagok adierazi digu, dosi txikietan bada ere eduki interesgarria jaso nahi dutela gure egutegian. Horrela, bada, batzuk umoretik, beste batzuk jolasetik, serioagoak hurrenak, baina baratzea, hizkuntza gutxiak, kirola, feminismoa, hezkuntza edo ingurumena bezalako gaiak aurkituko dituzu, besteak beste, eta astekariko Denboraren Makina edo Beranduegi atletatik aukeratutako hainbat pasarte ere bai. Horrekin batera, Euskal Herriaren historiako hainbat pegatina jarri ditugu erakusgai, sare sozialetan arrantzatutako ipuin-laburrak... Eta dena kontatuko ez dizuedanez, gozatu sorpresaz eguneroko dosi txikia. ■

Kataluniako esperientziei buruzko seriea abian

Katalunian independentzia egosten ari dira. Lortuko duten edo ez denborak esango du, baina biharko balizko errepublikaren zain egon gabe, praktikan diren hamaika proiektu esanguratsu ezagutzeko aukera izango du irakurleak hurrengo asteetan. Aurreko zenbakian CDRak (Errepublikaren Defentsarako Komiteak) ezagutu genituen, honetan Kataluniako hedabideen panorama, eta hurrengoetan etorriko dira, besteak beste, turismo masiboari Bartzelonan eman zaion erantzun herritarra, Manressako etxegabetzeen eta kapitalismoaren aurkako plataforma...

Sarean arrantzatutak

Oihana Bartra

@oihanabartra

Ederto bildu du @AdurLarreak @argian Puigdemontek eta Rajoyk momentu honetan duten buruhausterik handiena



June Fernández

@marikazetari

[Erredakzioan itzulia]

#BadiraEmakumeZutabegileak bat neroni, @eldiarioes eta @argia-n. Baina ez dira zutabegintzara gonbidatutako hedabideak, noski. #Zutabeakirakurtzenditut

Juantxo Arakama, Glaukoma taldeko abeslaria “MUNDUAN ROCK-AND-ROLLA JADA EZ DA ENTZUTEN DEN ESTILOA, ERREFERENTE IZATEARI UTZI DIO”

Bonberenearen inguruan sortu eta hazitako taldeak *Kalima* disko bikoitza aurkeztu berri du, orain arteko lan borobil, ilun eta osatuena. Era berean, munduaren ikuskera ilundu zaio taldeari eta askoz hitz oldarkorragoak idatzi dituzte. Hazi egin da taldea zentzu guztietan eta, rock talde baten gisa funtzionatu eta konposatzen jarraitzen badute ere, are eta estilo fusio handiagoa du lan honek. Teklatuak areagotu dira, melodiak presente daude, baina eskola geruza sendoagoak ditu, aberatsagoak, eta kanta bakoitzak izaera nabarmenagoa hartu du. Kantek bezalaxe, taldeak bere bidea egiten jarraitzen du. Juantxo Arakama abeslariarekin hizketaldia izan dugu.



Iker Barandiaran

@IkerBarandiara

ARGAZKIAK: DANI BLANCO





Salgai jarri aurretik diskoa sarean doan deskargatzeko moduan jarri zenuten...

Jarri genuen deskarga librean salgai jarri zen une berean. Jendea harritu da, baina guretzat koherentea da. Disko ugari deskargatu ditugu eta gure musika leku gehiagotara heltzeko modua da, ez dugu mugarik jarri nahi. Baduzu formatu fisikoa, baina beste batzuk ere bai.

Aurkezpen kontzertuan aipatu zenuen Glaukomako bost musikariek ez duzuela taldetik dirua irabazten. Zuentzat garrantzitsua da hori bereiztea?

Kristoren errespetua diegu musikaz bizi direnei, baina gure egoera ez da hori. Baina gure inguruan hala dela pentsatzen dute batzuek, eta horregatik argitu nahi izan nuen. Musika egitera 24 ordu dedikatzea oso ona izan daiteke, baina era berean zure independentzia eta askatasuna ez dira berak. Guk atera dezakegu nahi dugun diskoa, nahi dugunean eta nahi duguna kontatzen. Hori oso garrantzitsua da guretzat.

Diskoetxe-plataforma oso duin baina apal batean zaudete, baina gero eta jende gehiagok jarraitzen zaituztete. Nola bizi duzue hori? Bertigoia ematen du?

Bonbereneak eskaintzen digu azpiegitura, baina disko bakoitza autogestionatua da. Bertigoia? Ez. Jende gehiagok entzuteak ez du ekartzen beste modu batean funtzionatu behar dugunik eta gu oso

harro gaude. Nik astelehenero lanera joan behar dut igual-igual. Baina pozten nau jendeak kantuen gustuko izatea. Gainera, jende gehiagok gu entzuteak ez digu eragiten konposatzean; horri ez zaio inongo arretarik jarri behar.

Aurreneko bi lanak laburragoak eta entzuterrazagoak dira. Oraingoa, baina, disko kontzeptuala, luzea, ilunagoa. Diskoak baino kantuen kontsumitzen diren garai honen kontrara?

Gu diskoekin hazi gara, nahiz eta sound system kulturen ohikoak diren singleak. Baina guretzat lan egiteko formatua diskoa da. Ez zaigu inporta tendentziaren kontra egitea. Hasi ginen orain dela pare bat urte ideiak biltzen, inprobisazioak grabatzen... eta ez genekien disko bikoitza egingo genuenik. Erabat irekita geunden eta hala irten da.

Glaukomak oso melodia borobilak lantzen ditu, itsaskorrak. *Kalima*-n ere badira, baina askoz gordeago; ilunagoa da disko hau.

Bai, disko ilunagoa da. Gu zaharragoak gara eta oraingo Glaukoma *Kalima* da. Gure mundu ikuskera hau da orain. Dantza egiteaz gain, giro eta testura ilunetan ibiltzea gustatzen zaigu. Disko honek denetatik dauka: 13 kanta, interludio bat, ordu eta piku irauten du. Horrek ematen dizu denetatik egiteko aukera. Ez gaude beti haserre, ezta beti pozik ere, disko hau horren isla da.

Zu batez ere ragga, jungle, hip-hop... zalea zara. Besteak ere? Antzematen da zuen artean denetariko musika gustuak daudela.

Bai, denetariko gustuak daude atzean, baina neurri batean denok gara estilo horien zaleak. Toki desberdinetatik gatoz, baina reggae-a eta rap-a dira batzen gaituztenak. Estilo askotatik edaten dugu eta gure formatua rock banda batena da gehiago, reggae bandek ez dute inondik inora guk bezala distortsioa erabiltzen...

Luze jo dizue *Kalima* erditzeak.

Bai, baina nahita izan da. Bi disko, bira, Bad Sound System-ekin batera egindako lana... Kristoren erritmoan ibili ginen, eta erabaki genuen disko hau egiteko denbora lasai hartzea. Ez da disko sufritua izan. Gorabeherak beti izaten dira, baina nahi genuen mimoz eta gustuz egin eta hala izan da. Buru-belarri ia urtebete pasa dugu: konposatzen, letrak idazten, grabatzen...

Eta soinuarekin goia jo duzue.

Bai, oso-oso gustura gaude. Oraingoan are eta hobeto elkar ulertu gara *Txap*-ekin [Karlos Osinaga, soinu teknikaria]. Beti oso ondo ulertu dugu elkar, baina oraingoan pauso bat harago eman dugu. Lehen diskoan ez genekien zer soinu nahi genuen, eta gerora zaila egiten zitzaigun nahi genuenari hitzak

jartzea esplikatzen. Gainera, Txap-ek guk emandako ideia gehiago garatu du. Maisua da, eta berarekin konpartitzen dugun premisa bat da organikoa izan behar duela, hori errespetatuta noraino heltzea da kontua.

Gustura gelditu zara idazten eta abesten? Hitzak idazteko prozesu hori leizean sartuta, zer izaten da gogorra, ilusionantea? Hitzak idazteko denbora gehiago izan dut eta inoiz baino diziplinatuago aritu naiz. Zorte handia da horrela lan egin ahal izatea. Egin dut negar, barre, haserretu... egoera animiko guztiak pasa ditut.

Taldea oso musikari handiek osatzen dute; eta horren zalantzarik balego, horra hor, *Recreation* kanta instrumentala. Diskoak behar zuen kanta hori eta guk ere bai. Azken finean, ni nago txapa ematen kanta guztietan eta behar zuen instrumental bat gogoz egin. Banda bat gara eta reggae eta rap-etik harago goaz. Izan ere, rock taldeek bezala funtzionatzeko dugu: guztiok batera konposatuz.

Aurretik jakin bazenu zuen kanta bat Gazteako zerrendan egongo zela, are eta gordinago idatziko zenuke? [Barre egin du] Apustu bat galdu dut horregatik. Nik ez nuen uste, baina jarri nahi badute asko poztzen gara. Kanta eta hitzak onak dira eta garrantzitsuena da abestia eta mezua ahalik eta jende gehienarengana zabaltzea.

Hitzak urte batean idatzi dituzu, baina badira gaurkotasan handiko batzuk: esaterako, EAJK ertzain gehiago izateko saldu gaituela dioena. Bai, hori azkena izan zen.

Eta horra hor *Herentzia*, Kataluniako gertaerekin bat datorrena...

Hori lehendik idatzita dago, baina Trantsizioaren gaia ia eternoa denez... Hori beti izango da aktuala, zoritxarrez.

Zuen kantetako hitzek beti izan dute gertukoarenganako kritika zorrotza, baina disko honetan posizionatu zarete gehiago, hemen ez dago txantxarako tarterik. Urte batzuk pasa dira hasi ginenetik, musika industria ere ezagutu dugu, badakigu zer dagoen. Hala atera zaizkit hitzak, gogorrak, baina lehengo ari-keta bera eginez.

» “Munduaren iparraldeko gutxietsi egiten dugu hegoaldea”

Diskoaren diseinua dotorea bezain gordin da.

Dena jasotzen du, kontzeptu guztiak: basamortua, hondarra, itsasoa –hain zuzen ere, diskoaren norabidea–, generoaren asuntza –Barbie eta Ken–, esklaboak –kontzentrazio esparruen jantziekin–, ihesaldia... Guk nahi genuen diskoa entzun eta gero diseinuak zentzua hartzea.

“Hileta kanpairik ez, hau hasi besterik ez da egin, idor zegoen lurra berdetzen hasi da”. Iraultza rap-etik etorriko da behingoz?

Hip-hoparen gain uztea iraultza egitearen ardura... kontuz! Basamortuaren kontzeptuetako bat da Tolosaldean eta

Euskal Herrian, salbuespen batzuek gain, hip-hop eta reggae-a ez dela apenas egon eta are gutxiago euskaraz. Orain, aldiz, badirudi gazteek gero eta gehiago entzuten dituztela reggae-a, hip-hop, reggaetona... Eta euskaldunek bilatzen dituzte erreferentziak euskaraz: Bad Sound System, Ziribilio Sound...

Hip-hopak jende gaztea engantxatzen du...

Bai, baina gure inguruan gehiago engantxatzen du sound systemak, reggae-ak. Baina azken finean guretzat reggae-a eta hip-hop gauza bera dira. Engantxatzen dute oso musika estilo errealek direlako, benetakoak, kontatzen dizutenak gazteek ikusten dutena, eta horrek asko identifikatzen ditu. Euskal Herrian ez dakit zer gertatuko den, baina egia da munduan rock-and-rolla ez dela jada entzuten den estiloa. Nik oso gustuko dut, baina erreferente izateari utzi dio.

Zer dakarkigu hegoaldeko haizeak? Eta zer ikasi beharko genuke hegoaldeetik?

Munduaren iparraldeko gutxietsi egiten dugu, baina hegoaldean badakite zorientasuna guk baino errazago aurkitzen, badakite beste erritmo batean bizitzen. Askok daukagu beraieganetik ikasteko.

“Kalima, zer prezioan saltzen dugu gure arima”. Ze mixableak garen guztiok...

Bai. Esklaboak gara denok. Eta esklabo bezala, batzuk kontzienteago, beste batzuk oso pozik esklabo izate horrekin, eta beste batzuk ez hain pozik. Zer den Kalima? Gaur egungo basamortua, post-modernitatea, galderarik gabeko mende baten kronika... Izan ere, gaur egun ez da erantzun falta, galdera falta baizik. ■

BERTSOLARI
TXAPELKETA
NAGUSIA
2017

Finalurrekoak 1.itzulia

Urriak 28, BASTIDA

Azaroak 1, IRUN

Azaroak 4, MAULE-LEXTARRE

Azaroak 12, DURANGO


Antolatzailea

Laguntzailea



ARGIA

bertsozale.eus



Pello Irazu

Bizitzeko moduko espazioa



Xabier Gantzarain
@gantzarain

KANTOIAN LOTAN (1990)

Altzairua eta pintura. 4 zati: 14,5 x 14,5 x 25 cm bakoitzak.

Lehen aldiz ikusi nuenetik maite dut lan hau. Ez da akaso onena, ez da seguru asko artistaren ibilbidea ondoen laburbiltzen duena, baina haxe da nire kuttuna, eta bere erara ondo erakusten du artistaren kezka estetiko nagusientakoa: ikuslea espazioan barneratzea, artelana bizi dezan, fisikoki bizi ere, ez maila kontzeptual soilean bakarrik, espazio beraren baitan sarraraziz baizik ikuslearen gorputza.

Atzera begirako soilak izan gabe ere, Guggenheim Bilbao Museoak bakarkako erakusketa eskaini dio aurrean bertan, artistak erakusketa aretoaren espazioa bera eraldatuz beretzat hartu

zuena, hasiera eta bukaera batuz, neurri batean ibilbide edo garapen artistikoaren ideia bera ukatuz, sortzean beti hutsetik abiatzen zarela erakutsiz bezala, eta hala ere 30 urteko ibilbidean egindako lanen arteko koherentzia eta lotura nabarmenduz.

Erakusketa horren harira artistak berak esandakoa da hau: “Hasieratik interesatu izan zaidana gutxi landu den ideia bat da, edo oso ideia arrotza behintzat eskulturaren munduan, hots, paisaiaren ideia. Gauzak idulkitik kentzean elementuek zure espazio bera konpartitzen dute. Orduan, hor espazio bat sortzen da. Zuk espazio horretan

parte hartzen duzu, objektuek espazio horretan parte hartzen dute, eta hori ideologikoa da. Paisaia efektu bat sortzen da. Baina ez irudi mailan bakarrik, baita inguru hori bizitzeko moduan ere”.

Gizakiari espazio berriak sortzea da artistaren zeregina; bere buruari jarritako araua dirudi. Baita beste honen ere: emozioak ikuslearengan egon behar du, ez lanean. Begira oheak ez diren bi ohe horiek, hortxe bizitzeko gogoia ematen du.

Lan asko egindakoa da Pello Irazu Mendizabal (Andoain, 1963ko urriaren 26a), lan asko ari da egiten, bizitzeko moduko espazioak sortzen. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Bizitzaren bidaia



Xabier Etxaniz Erle

Liburuaren azalean ageri dira obra honetako protagonistak, Xuban eta haren aita, eta hasieratik ikus dezakegu bien arteko harremana eta batek bestea babesteko nahia. Barruko lehen irudian bertan ageri zaizkigu aita-semea eskua emanda eta nola begiratzen dioten elkarri. Eta babes sentimendu horren inguruko obra dugu hau; bizitzari aurre egiteko zer egin behar dugun, nola egin aurre zailtasunei eta eragozpenei.

Zeruan dauden enarak Lurraren beste muturrera doazela esaten dio aitak Xubani, eta honek orduan: "Handitzen naizenean, horren urrun joan ahal izango naiz ni ere?". Eta hain zuzen, aitak baietz esatean, "baita urrunago ere", sortzen zaizkio Xubani kezka, beldur eta zalantza guztiak. "Eta haizea harrotzen bada?", "Eta olatuek bustitzen banaute?", "Eta iluntzen badu?", "Eta beldur banaiz?"... Galdera guztiei erantzuna ematen die aitak. Semearen beldurrei eta kezkei, erantzun baikorra eman nahian.

Liburuaren egitura, ezkerreko orrialdean ageri zaigu Xuban arazo berrien aurrean kezkatuta, larrituta, beldurtuta; eta eskuinean, aldiz, aitaren erantzunarekin batera Xubanen beste irudi bat, arazoari irtenbidea emanez, irribarrez, aurrera egiteko adoretzu.

Egitura errepikakor honetan ageri dira haurrari bidaia horretan zehar bururatzen zaizkion zalantza guztiak, batzuk egoera fisikoarekin erlazionatuak, beste batzuk,

Aitak esan dit

ASTRID DESBORDES

Ilustrazioak: Pauline Martin.

Itzulpena: Aztiri itzulpen zerbitzuak.

Tartalo, 2017.

44 orrialde. Haurrentzat.



aldiz, bere sentimenduekin (triste, bakarrik, beldur...); horiei guztiei erantzun egokia ematen die aitak, baita amaiera aldean "Eta urruti baldin bazaude?" bezalako galdera ilunei ere, heriotzaren presentzia gogoraraziz.

Xubanen zalantzak argiturik, aita-semeek hondartzan ibiltzen jarraitzen dute: "Beraz, horren bidaia luzea egin ahal izango dut? -galdetu dio Xubanek. -Horixe! -erantzuten dio aitak- Baina ez izan presarik, bizitza osoa duzu-eta hara iristeko". Eta bizitza bidaia horixe dela erakusten zaigu; zailtasunei, beldurrei, eragozpenei aurre egin beharreko bidaia.

Liburu simple eta eder honen irudiak oso errealistak dira, sinpleak eta argiak; zenbaitetan haurraren sentimendua kolorearen tonuan ageri zaigu islatuta, beste batzuetan eguna eta gauaren denbora pasa iradokitzen, baina bai batzuetan nahiz besteetan itxaropenarako deia ikus dezakegu Xubanen irribarrean. ■

Astrid Desbordes Parisen bizi da. Filosofoa da eta haurrentzako idatzi ohi du.

» DISKOA

Goxotasun bortitza



Iker Barandiaran
@IkerBarandiara

Badira hiruzpalau urte *La Furia* gerra-izena duen rap abeslaria ezagutu nuena. Gerora jakin nuen abortuaren legearekin lotuta Alfonso Alonsori zuzendutako kantu ausart batek ezagun egin zuela zenbait forotan. Emakume izaera eta –ondorioz– borroka grina erraie-tatik dario. Hala, aspaldi erabaki zuen rap-a ibiliko zuela emakumeen ahalduntzerako instrumentu gisa eta, jakina, barruak askatzeko ere. Ez hori bakarrik: bere kanta abestu eta idazteaz gain, emakumeak ahalduntzeko taillerak antolatu eta gidatzen ditu, eta emaitzak begi bistan daude; edo oraindik ikusi ez badituzu, egon adi!

Furia-k betidanik idatzi izan du eta hori igartzen da disko honetako kantetan –nahiz eta ez dituen hitzak idatziz jaso–. Zenbait tartetan hip-hoparen marka den kale hizkuntza zuzen eta gordina, amorratua erabiltzen badu ere, baditu bestelako ñabardura gehiago, errailetako poesia mingotetik hain zuzen ere.

Aspaldidanik idatzi arren, denbora eman zuen Nafarroako hegoaldean agertokietara igotzen hasi arte eta ausardiaz beteta egin zuen aurrera. Poliki-poliki, hutsetik hasita, bere bidea egiten dihardu. 2013an *No hay clemencia* diskoa ka-

Vendaval

LA FURIA

Autoekoizpena, 2017.

Nerea Loron rap abeslaria da
La Furia (Cascante, 1983).

ARGAZKIA: ITZIAR BASTARRIKA.



leratu zuen eta bertan oso agerian utzi zuen bere motxilan rap-az gain, kulturalki jasotako bestelako eraginak, inoiz ezkutatu nahi izan ez dituenak, ere oso presente direla: koplak, jotak eta beste.

Disko berri honetan, baina, elektronikak –xumeak– tarte bat hartu du. *Vendaval* hau bere baitan anitza, bortitza, goxoa, xuxurlaria eta amorrazioz betea ere bada. *Vendaval* saetak irekitzen du lana eta horri jarraiki kale giroko rap indartsua dator. *Lo llamáis cielo*-k mistizismoa ezandarazten du goxo errezeituz. *Brujas del Norte*-k errezi-tatzetik eta elektronikatik du. *Cachorras* ere zuzena da, erabat urbanoa, hasperen eta scratchekin. *Mi silencio*-k souletik edaten du, ederra da. *Aunque duela* kutsu flamenko eta arabiar handia duen poesia da. *Llegando a casa* dark leunaren jantzia duen hip-hopa. *Quisiera vivir* panpinen doinu kaxak ezkutatzeko duen arnasa. *El diccionario de la mala vida*-k elektronika minimalista dauka lagun. Eta, azkenik, *Necesito rap*-ek asko dauka abestetik. ■



Kulturak egiten gaitu nor



Itziar Ugarte Irizar

@itzugarte

IRUDIA: AINARA LASA

NOR IZATEAREN ALDE

Urriaren 12an, Donostiako Tabakalera ondoko plazan.

“Boteprontoan eta piroteknia handirik gabe”. Jarraian datorrena hala datorrela aurreratu du Amagoia Gurrutxaga kazetariak. “Kataluniaren aldeko elkartasunez. Eta maitasunez”. Kultur munduko herritar batzuk antolatu, eta plaza hartu. Gauetik goizera, ia-ia, dei bat honi, atea jo hari. Aurpegi ezagun ugari batu dira, baina bakarria ere ez zen iragartzen bezperan zabaldutako afixan. Garrantzitsua ez baita zeinek, ezpada zer. Tira, urriaren 12a da-eta.

Bi mikrofono eta bost kartel horma kontran; hori atrezzoza, ekitaldiaren neurrikoa. Urriko eguzkitan gozo dauddenak ipurdia altxa, eta mikrofono pareko itzalean batu dira. Lorea Agirrek irakurritako manifestuak argitu du plaza hartu dutenen kezka: “Galdera da ea ba ote garen geure buruentzat nor. Geure buruari baimena ematen ote diogun nor izateko, gorputz politikoak izateko, aske izateko”.

Kantuz jarri diete #subiranotasunaren alde, #erasoenkontra, #gukataluniagara aldarriei alea askok –Aloña Jauregi

eta Oneka Garmendiak hasteko–, eta poesiari heldu diote beste hainbestek: Olatz Beobidek Maria Mercè Marçal poeta kataluniarra ekarri du; Ainara Lasak Oier Guillan; Maialen Berasategi Adrienne Rich; Alberto Barandiaranek Vicent Andres Estelles; Petra Elser; Idurre Eskisabel, Eider Rodriguez; Paul Bilbaok Bertol Brecht; eta Jose Luis Otamendik berandu baino lehen manifestutzat har genezakeen *Iritsiko da eguna* poema propioa.

Galtzeko asti barik, bat desagertu ahal agetzen da hurrengoa. Bistan da ba-koitza bere-beretik ari dela. Argia da Amaia Lasarena; inperioaren eguna ospatzen denean Ameriketako gitarrek erresistentziaren eguna dutela gogoratu du, eta indigenen alde, eta herrien Europaren alde paratu da behin Nikaraguako gerrillan borrokan aritu zena. Bere poema bat irakurri, eta diot benetakotasuna dariola plaza inprobisatu honi.

Martxelo Otamendik ezustean harra-patu gaitu Txarangoren *Agafant l'horitzó* kantua jarri duenean, prozesuan

erreferentziatzko abestia bihurtu dela-eta gazteen artean. Eta mambo, dantzatan-edo jarri du plaza. Orduan konturatu gara gazte asko ez dela inguruan. Giroari eutsi diote Joxe Mari Agirretxe, Txapas eta lagunek *Epo ita ita ye* “konjurua” bota dutenean. Paul Bilbaok “demokraziaren aldeko iraultza katalanez” egiten ari direla azpimarratu du, eta mundial Mursego, Dut-en *Haize eza* eta RIP-en *Terrorismo policial* klasikoekin aurrekoen errebelia zirikatuz.



Gustura nabari da jendea, eguna ez ospatzeko modu bat bilatu duelakoan, akaso. Izan da besterik, eta ezin aipatu barik utzi: Ines Osinaga aspaldikoz, Ekhi Atorrasagasti kazetariaren testigantza, Joseba Tapiaren ironia fina, Dani Fanoren atzeko lana, Morau eskemak hausten, Dana Sarriionandiaren hitzetan, Amaia Zubiria *Rossinyol*-i emana. Eta, bai, *L'Estaca* eta *Els segadors* amaitzeko.

Diot nik, ez dela behar gehiago plaza hartzeko, laster eroriko bada, nor izango bagara. ■

Egilea: Ana Zambrano

Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Mikel Reparazek, EITBren AEBetako berriemaileak, esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.


	5	7	4	8	9			2
	8	3	2		5		6	
				7		8	4	
		8		5	3	2		
	4			2		5		
3								
5					3		6	
1	9		3	2	6	8		
	3			7	1			

5				2		9		
			3			5		
	1	7		9		8	4	
		1		4				
8	9					4	6	
				7		1		
1	8			3		6	9	
		4		2				
		9		8				5

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Tripa. 2. Apaiz. 3. Tren bateko orga.
4. Edo-ren indargarria. 5. Fidel.



Hizki berak

Osa itzazu hitzak falta direnak hizki berak direla kontuan izanik, hori bai, hurrenkera ez da zertan bera izan.

1				T	Z	I	R	A
2	A			A	R	T	E	
3	G	R			T	O	A	
4	I	N	D			O	A	
5	K	A	R	D			L	
6	T	X	I	M	I			

Ebazpenak

8	3	6	5	7	1	4	2	9
1	9	4	3	2	6	8	7	5
5	7	2	9	4	8	3	1	6
3	2	5	1	6	4	7	9	8
7	4	1	8	9	2	6	3	5
9	6	8	7	5	3	2	4	1
2	1	9	6	3	7	5	8	4
4	8	3	2	1	5	9	6	7
6	5	7	4	8	9	1	3	2

3	6	9	1	8	7	4	2	5
7	5	4	9	6	2	8	1	3
1	8	2	4	3	5	6	9	7
4	2	5	6	7	9	1	3	8
8	9	3	1	8	5	7	2	6
6	7	1	8	4	3	2	5	9
9	4	6	3	1	8	5	7	2
2	1	7	5	9	6	3	8	4
5	3	8	7	2	4	9	6	1

Puzzlea: "Beste planeta bat da Trumpi botoa eman dion gehiengo zuri kontserbadorearena. Bertan ez dago inolako zalantzarik, presidententearekin daude erabat".
5x5:
1. Sabel. 2. Abade. 3. Bagoi. 4. Edota. 5. Lelal.
Hizki berak:
1. Aintzira. 2. Anaiarte. 3. Granitua. 4. Indianoa. 5. Kardinal. 6. Tximniala.

Claudine Sagaert. Itsuskeria deseraikiz



Histoire de la laideur féminine (Itsuskeria femeninoaren historia) liburuaren idazlea dugu Claudine Sagaert soziologoa. Genero-ikuspegian oinarriturik, Antzinarotik gaur egun arte egindako “itsusi” kalifikatzailearen erabilpena aztertu du. Ondorioa kezkagarria da: menderatuaren posiziotik aldendutako emakumeak diskriminatzeko eta estigmatizatzeko erabili da betidanik. Garaiak aldaturik, gaur egun edertasuna bilatzearen presioa dute bizi emakumeek.

“Politikoki erabilitako eraikuntza da itsuskeria”



Jenofa Berhokoirigoin

@Jenofa_B

ARGAZIAK: CLAUDINE SAGAERTEN UTZIAK

Tabua hautsi

“Testu politikoak aztertuz oharu nintzen itsuskeria eraikuntza dela. Bestelakotzat hartzen den gorputzari dagokionez, hau da ezberdinari, atzeritarrari buruz argiki ageri da. Eder-tasunaz liburu anitz daude, haatik, ez gara itsuskeriaz hitz egiten ausartzen. Tabua da. Alta, bizi anitzen bihotzean dugu eta benetako arazoak dakartza. Norberaren eraikuntzan eragiten du eta erabat estigmatizatzailea eta mingarria da, bestearen begiradatik pasatzen delako”.

Nola definitzen duzu itsuskeria?

Iraina dugu definizioaren erdigunean. Eraikia da eta diskriminazio tresna gisa erabiltzen da. Pertsona bat itsusi gisa sailkatuz gero, errazagoa zaigu gaitz egitea. Politikoki erabilia den eraikuntza bat da itsuskeria. Genero-ikuspegitik aztertzean argiki ageri da.

Sorgin-ehizarekin, esaterako.

Kalifikatzaile horren atzean emakumearen independentzia da gordetzen. Usu bakarrik bizi ziren, nahiko independente ziren. Sendabelarrei buruzko jakintza zuten. Jakintzak boterearekin errimatzaren duenez, jakintza-botere lotura hori mugatzeko, diskriminatu eta sutara bidali zituzten. Medikuntza antolatuta zuten, jakintza lapurtuz. Boterearen usurpazioa gertatu zen, dimentsio intelektualik gabe irudikatzeko emakumea. Izandako feminizidio handienetakoa dugu, emakumei eraso zitelako, menderatuaren papera betetzen ez zuten emakumei.

Ez dira itsusi gisa definituriko bakarrak izan.

Mutxurdinekin berdina gertatu zen.

Zergatik? Estatus hura ez zelako onartua. XIX. mendean, *Bas-bleu* espresioarekin izendatu emakume letradunekin ere berdin. Idazten zutelako. Eta sexualitate “desbideratua” zutenekin ere bai, ez ziren osoki emakumeak.

Feministei ere lotzen zaie kalifikatzailea.

Gogoetatzen duen emakumeari lotu ohi da itsuskeria. Asaldatzen diren guztiak jotzen dira itsusitza. “Ederra izan eta isildu” izanki leloa, hitz egiten duena itsusia da. Ederrak ez du adimentsuarekin bat egiten. Gaur egun ez da hain azkarki sentitzen, baina ideia hor da. Femen-ekin adierazgarria da. Ez dira serio oski hartuak eta hein batean haien itxurarengatik da.

Aspalditik ematen da joera hori?

Antzinako Grezian jada emakumearen gutxiagotasuna ahultasun fisiologiko bati lotzen zuten. Hipokratesen ustez, hotza eta hezea da emakumea; izan haurdunaldi ala hileko, beti eri balitz bezala ikusia da. Eri izanki, bere ahal intelektualak eta batez ere moralak ezin ditu erabili. Kalos Kagathos da zinezko



XX. mende hastapenetik, itxurak geroz eta garrantzi handiagoa hartu duela azaltzen du Sagaertek: "Hainbat mendez itsusia dela entzunik, geroz eta ederrago izatearen presioa hor du emakumeak".

edertasuna, fisikoki, intelektualki eta moralki ederra dena. Emakumeak azaleko edertasuna du. Pandora oso ederra da baina Hesiodoren testuari segi, Hermesek txakur baten bihotza ezartzen dio. Emakumea materiari lotzen da, gizona espirituari. Aristotelesen testuek diote materia moldegabea dela eta gizonak diola forma ematen. Bakarrik hartuta, emakumea eskasa da. Mentalitateen historian leku handia du horrek.

Lotura hori nolakoa zen Erdi Aroan?

"Emakumearen gorputz ederrak ustelkeria baino ez du gordetzen", Clunyo apaizak dioenez. Antzinaroko usteak "Eva" pertsona ondorioztatu zuen: bekatuaren oinarrian dena, itsuskeria morala duena.

Eta gaur egun?

Eskubideak lortu ditugu XX. mendean. Emakumeok historia idazten dugu eta gureaz gogoetatzen gabilta. Ez gara gehiago aitaren edo senarraren gerizapean. Hala ere, ez da sinple eta ezin dugu orokortu. Elementu garrantzitsu bat hedatu zen XX. mende hasieratik ai-

tzina: ispilua. Ordura arte aberatsek eta bizargileek baizik ez zuten.

Garrantzi handiko objektua.

Paradoxikoki, eskubideak ukan arren itxuraren menpe da gaur egun emakumea. Daukan itxuraren erantzuleztat joa da. Aldaketa handia da hori. Fatima Mernissik dio diktadorerik gabeko diktadura batean garela. Hainbat mendez itsusia dela entzunik, geroz eta ederrago izatearen presioa hor du. Itsuskeriari gerra deklaratu zaio. Bestalde, emakume zuriari lotu ohi da edertasun femeninoa. David Le Bretonek dio emakumea "etengabeko zuzentzean" dela. Gizonak baino askoz gehiago, nahiz eta haiek ere geroz eta presio handiagoa ukan.

Zahartasunak itsuskeriarekin errimatu ohi du.

Edertasuna emakume gazteari lotu ohi da. Garai zaharretan, menopausia eta gero ez zuen ezertarako balio emakumeak. Idatzi anitzetan ikus daiteke emakume zaharrak ez duela sexualitatearik ukan behar. Gaur egungo film gutxitan da sexualki uros den emakume

zahar bat ageri. Berriz ere, gizonentzat ez da berdina gertatzen.

Txikitatik sentitzen da presioa.

Jean-François Mathieuk dio neskato bat 7 urterekin jada krisian dagoela bere itxurarekin. Ninfoplastiari buruz ari naiz lanean eta haien gorputzarekin, sexuarekin, hots, itxurarekin desadostasunean diren gaztetxo batzuk ezagutzen ditut. Tabua hautsiz, itsuskeriari loturiko suizidioei buruzko estatistikak eskatzen ditu Claude Olievensteinek: itsusiak direla erran izan zaielako edo edertasunaren irizpideak betetzen ez dituztelako suizidatu direnei buruzkoak.

Nola lor dezakegu gure burua maitatzea giro honetan?

Ez da galdera samurra. Emakumeok hitza hartzen segitu behar dugu, presioa errefusatu behar dugu. Edertasunak denbora anitz hartzen digu eta denbora hori gutxiago dugu uros izateko beste bideak jorratzeko. Akitzen gaitu eta ondorio latzak ekar ditzake. Azkenean, amaierarik gabeko borroka da, bizirik izatea zahartzea delako. ■



Patxi López: "Prest nago Kataluniako presidente izateko; lehendakari izateko baino are gehiago"

Bartzelonara doan trena iritsi bitartean luzaketak egiten ari zela, Patxi Lópezek adierazi du badela ordua "kataluniar guztiak" ordezkatzeko dituen presidente bat egon dadin, herritarren gehiengoak bozkatu duen Generalitate "antidemokratiko" honen ordezkari. Horregatik, prest agertu da Puigdemont ordezkatzeko. "Hasi naiz katalana ikasten ere, 155

urratseko metodo batekin", esplikatu du. "Joder, euskara baino askoz errazagoa da, hitz guztiei azkeneko letra kenduta gutxi gorabehera badakizu!". PSOEko kidearen arabera, lehendakari izateko baino prestatuago dago orain: "Hura lehenbiziko aldia izan zen eta sexuarekin bezala da hau: esperientziak asko laguntzen du. Bueno, eta kariñoak".

SAREAN ARRANTZATUA

Playmobiletatik ez dira pasako



Botere banaketa Espainian



Herri aparkalekua eraikitzen hasiko dira Tosuko okupak, ekintzaileei "joan-etorriak errazteko"

Ibarbengoako baratzeak berreskuratu eta gero, lehen neurria "parking militante" bat egitea izango dela iragarri dute Tosu Betirako asanbladako xalauak. "Getxoko Udalak eraiki gura duen aparkalekuari aurre egitea lan nekeza da; jende asko etortzen zaigu elkartasuna adierazteko, eta hau lekutan dagoenez luze samar ibili behar izaten

dute oinez", azaldu du Bultzi Tarrantino asanbladako mugikortasun arduradunak, etorri handiz.

Udaleko iturriek, ekintzaileen asmoa jakin bezain laster, adierazi dute ez dute inola ere onartuko Tosun aparkaleku bat egiterik. "Tturrukuttukuttu, Tosu ez ikutu!", argudiatu du Imanol Landa Getxoko alkate eta zelai kontuetan adituak.



Bi ekintzaile, Tosuko baratzearen erdian, 2037an.

"ELS CARRERS SERAN SEMPRE NOSTRES" kamisetak ARGIAAn salgai

Kamiseta hau erosita, 2 euroko ekarpena egingo diozu Kataluniako La Directa herri hedabideari, eta 2 euroko ekarpena ARGIAri, Kataluniako independentzia prozesua epe ertainera ere zorrotz jarraitu ahal izan dezan.



**Informaziorik gabe ez dagoelako demokraziarik,
kazetaritzan ere sustatu independentzia!**

ESKAERAK

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com